

Arrasate

P R E S S

2000.eko
uztailaren 21a
505. zenb.

Udan noraezean



IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: ONINTZA LOPEZ DE MUNAIN
KIROLAK: MUSAKOLAKO KIROLDEGIA • KULTURA: JM VELEZ DE MENDIZABAL



Gauza ez da guretzat errentagarrien den ihes-hodia jartzea edo eskuragarri dugun bakarrra jartzea. Nissaneko kontzesionario guztietan, originalak diren ordezeko piezekin lan egiten dugu soilik. Gainera, prezioen menu bat daukagu, itxia, salmenta osteko eragiteka guztientzat (eskulana eta BEZ barne). Hau da kontzesionario ofizialen abantailetakoa bat. Besteak, begibistakoak dira: espezializatutako langileak, zerbitzu profesionala eta 12 hilabetetarako konponketak bermatuta. Eta gainera, orain, ohizkoak ez diren prezioengatik, ihes-hodi originalak jartzen ditugu zure esku. Behar baduzu, etorri zaitez zure ihes-hodia jasotzera. Gurekin, idem bateko abantailak dituzu.

Abantailak bete-betean.

Ihes-hodia 11.700 pta.tik aurrera • Aurreko motelgailuak 22.750 pta.tik aurrera
Enbrage kita 20.200 pta.tik aurrera • Balazta pastilen jokoak 7.000 pta.tik aurrera

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE - MONDRAGON

* Nissan Micra 1.0 rentzat salneurri gomendatua (BEZ eta eskulana ez daude barne)



GIDATU ETA GOZATU

Oporretan pentsatzeko (nahi duenak, noski)

Egun gutxi barru, barbakoa sardinak erretzen, edo mendi-goietan birrikak garbitzen dituzun bitartean, agian pentsatzeko parada izango duzu. Ez da oporretakoa sasoi txarra egunerokoa beste modu batean ikusteko, urrundik, patxadaz. Horrelakorik suertatuz gero, hemen dituzu burukantsaziorako ideia batzuk, politikari buruzkoak. Debalde.

Lehena, orain urtebete baino okerrago gaude. Zergatik? Bakoitzak nahi duen proportzioan banatuko ditu kulpak, baina su-etena amaitu ondoren, ordura arte eraikitako ia guztia suntsitzen ari da. Eta ala ere, zein da erremedioa? Abiatutako guztia bertan behera uztea, hala indarrak metatzea eta elkar hartzea? Zergatik ez da posible elkarlana



Mikel Irizar

atentatuak daudenean? Ez al da orduan beharrezkoago? Nor eta zer ari da gailentzen azken hilabeteotan? Eta zer eta nor ahultzen?

Bigarren, orain hiru urte baino hobeto gaude. Okerrak oker, egindako guztia zakarretarako modukoa al da? Lizarrako adierazpenean abertzaleek onartu izana Euskal Herria Espainia izan daitekeela

herritarrek hori nahi badute, ez da sekulako aurrerapausoa? Pentsa, une batez, konstituzio zaleek bidearen beste erdia egiten dutela, hau da, Euskal Herria independentea izan daitekeela onartu, herritarrek hori nahi badute. Ez ginateke orduan gatazkaren behin betiko konponbidearen atarian egongo?

Hirugarren, konstituzio zaleak orain hogeitau urte baino indartsuago

dira. Ez da izango, besteak beste, ezadostasun guztien ginetik adostasun nagusiak gordetzen dakitelako? Ez da izango haien nazionalismoa gaurkotu eta Europan homologatzeko gai izan direlako? Ez da izango aurkariaren ahuleziak nabarmentzen azkarragoak izan direlako? Ez da izango, finean, arrazoa izatea baino adimena, batasuna eta trebezia erabiltzea egokiago dela irabazteko?

Azkenik, ez ote da herritarren ordua berriro? Konponbidea hurbil samar ikusten zenean alderdien ordua zela idatzi nuen, haiei zegokielako gizarteak egindako lana paperean jartzea. Baina, herritarrok neke handiz jasotako dorrea, osatu barik, botatzen ari dira. Ekingo diogu berriz jasotze-ari? Hori bai, oraingoan zuhurrago ibili beharko dugu, eta dorrea hobeto tinkatu. Baina, ondo irtetzen bada gu izango gara onuradunak, eta gainera, langintza horretan eraldatu egingo gara, elkarbizitzarako hobeto prestatu.

Eta, pentsatzen ari zarela sardinak erretzen bazaizkizu, edo auspoa berotzen, sentitzen dut.

Konponbidea hurbil zenean alderdien ordua zela idatzi nuen. Baina, herritarrok jasotako dorrea, botatzen ari dira.

“Lehen argibideen arabera, arrasatearrak ez omen dira iraultzaileegiak bidaia kontuetan”.

Leire Kortabarria eta Ubane Madera

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marjio Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria eta Gorka Etxabe. **Publikatzailea:** Nerea Zallo. **Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe,** (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administratzailea:** Agurtzane Gaitzarin, Ane Berzibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemakilea:** Lorea Agintano **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta intzientzen erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trutxuelo.

1.080.228

pezeta jaso ditu
Harreman-ek Mozanbikera bidaltzeko.

Arrasateko GKE honek bailarako beste GKEekin batera, martxoaren 3an ekin zion dirua jasotzeari eta maiatz bitartean 6.672.666 pezeta batu dute Debagoienean. Dirua Intermon elkarteari eman diote, + honek Mozanbiken gertatutako uholdeetan jasandako kalteak ordaintzen laguntzeko.

AURKIBIDEA

• Ikuspegia	3	• Asteko gaia	19/21
• Oporretan pentsatzeko		• Gogoa nora... zangoa hara!	
• Irakurlea idazle	4	• Aurrez aurre	22/23
• Inkesta	5	• JM Barrutiabengoa	
• Euren ikuspuntutik	6	• Auzoz auzo	24
• Bai Euskal Herriari		• Ferrerriaseko jaiak	
• Begi kolpez	7	• Kirolak jokoan	26/29
• Asteko hitzorduak	8/9	• Kulturaren txokoa	30/32
• Astearren errepassoa	10	• Ikusi eta entzun	33
• Orain eta hemen	11/12	• Dena auto	34/35
• Txutxumtxuak	13/14	• Azoka plaza	36/37
• Auzoz auzo	16	• Foto zaharra	38
• Maalako jaiak			

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

Egun hauetan, gure gizarte honetan bizitzen ari garen giro benetan bortitz, alde batetik, eta aldi berean, baita ere jasangaitz honen inguruan, zera adierazi nahi nuke laburki ez bada ere, gutun honen bitartez:

Hain zuzen ere, lehen aipaturiko giro nahasi hau, eta batez ere, Euskal Herriko gatazka hau, behingoz gainditzea nahi baldin badugu, eta era berean baita ere, giro hau gainditzeko lagunduko digun bake prozesuari bultzada berri bat ematea nahi baldin badugu, denon artean, eta batez ere denon laguntzaz.

Nahitaezkoa deritzot, prozesu horretan zerikusia dutenei, nahiz alde batekoei zein bestekoei, mahai baten inguruan jarraraztea eragingo dien bitartekariak bilatzen hastea berehala.

*Jose Ignacio
Barrutiabengoa*

Erredakzioaren oharra

OPORRETARA GOAZ!!!

Gaur Arrasate Presseko langileok oporrak hartu ditugu. Hori dela eta, ez duzue herriko aldizkariaren ale gehiagorik izango irailaren 3a arte.

Ordura arte, ondo ondo ibili eta ahalik eta gehien deskantsatu. Ondo izan eta pozik bizi lagunok!

Arrasate Press

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 21

- Amezua, Santa Marina

Larunbata, 22

- Ruiz, Maalako Errebala

Igandea, 23

- Morales, San Andres

Astelehena, 23

- Irizar, Erguin

Asteartea, 24

- Amezua, Santa Marina

Asteazkena, 25

- Ruiz, Maalako Errebala

Osteguna, 26

- Morales, San Andres

Sile Sile

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Kanpanzar Eguna ospatzeko ohiturarik badaukazu?

Uztailaren 31n, Santiago egunean, izango da Kanpanzar Eguna



Josefa Barkero
(48 urte)
Langilea

> Ez, ez daukat ohiturarik jai horretara joateko.



Jose Juan Iria
(39 urte)
Langilea

Lanera joan behar naiz egun horretan.



Josu Zugasti
(12 urte)
Ikaslea

Ez, ez naiz joaten. Ez dut ezagutzen. Oraintxe jakin dut jai hori egiten dela.



Mari Tere Kortabarria
(46 urte)
Langilea

Ez, opor bezpera edo opor eguna izaten da eta beste gauza batzuetan pentsatzen egoten gara egun horretan.



Mari Jose Leon
(47 urte)
Langilea

Ez, ez naiz joango. Txikitant joaten nintzen, baina orain ohitura galduta daukat.



Silvano Pascual
(62 urte)
Erretiratua

Kanpanzarren askotan egon izan naiz, baina jaia ez dut ezagutzen. Agian egunen baten joango naiz.



Denis Llodio
(23 urte)
Langilea

Ez daukat ohiturarik, ez naiz inoiz egon.



Amaia Ramos
(22 urte)
Ikaslea


Bai, lau urtez joan izan naiz eta gustura ibili naiz.



Haurtxoa

%50 beherapenak

Arrasate pasealekua, 4 • Tel.: 943 79 14 90 • ARRASATE



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

USTEAK USTE

**Oporrak.
Azkenean!**

Irtsi dira, urte osoan zehar itxaroten egon garen udako oporrak. Gaurtik eta irailaren 4a arte, ez duzue beste Arrasate Pressik jasoko etxean. Gu oporretara goazelako da. Eta garaiak agintzen duen bezala, gogoz hartu ditugu opor egunak. Baina, kezka pixka batekin ere bai. Normalean garai hauetan jende askok izaten ditu oporrak eta egin barik edo bukatu barik edo hasi barik dauden gauza mordo bat, horrela gelditzen dira, arrazoi horregatik. Eta gure etorkizunean eragina izango duten gauzak izaten dira normalean. Gure herrian eragina izango dutenak. Izan ere, oraindik ez dugu gure herrian dugun arazoa konpondu eta bagoaz guztiok oporretara. Ordezari politikoez ere oporrak hartuko dituzte eta euren eginbeharrak albo batera lagako dituzte, irailaren berriz "horri" eusteko asmoz. Inozoak gara horrela dela sinisten badugu. Behin hilabete pasa ondoren, "hor konpon Mari Anton" esan eta beste gauza bati ekingo diogu. Eta, bitartean, ondo pasa.

Marijo Deogracias



Bai Euskal Herriari

* Onintza Lopez de Munain

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak dienez, "inori ezin zaio bere nazionalitatea arbitrarioki ezabatu"; Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunak aitortzen duenez, "herri orok du bere etorkizuna libreki erabakitze eskubidea, bere estatus politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala finkatzekoa".

Hala ere, Euskal Herriko Euskaldunok etengabe pairatzen dugu nazionalitate ezabaketa hori. Gure herrian "diskriminaturik" bizi gara eta gure bizitza pertsonal eta sozialeko atal guztietan islatzen da "diskriminazio" hori. Horren lekuko, euskaraz bizitzeko aukeraren murrizketa inposatua, gure eredu sozial eta ekonomikoa erabakitze ezintasuna, ordaindu beharreko errepresio edo lege arrotzen aplikazioaren ondorioak, eta abar. Honen guztiaren oinarrian euskaldunon eskubide zibil eta politikoak gauzatu ezina dago.

Beraz, bizi dugun erre-

alitate honi aurre egiteko, euskaldunon eskubideak gauzatu eta egi bihurtu behar ditugu. Gure ustez, euskal herri-tar gisa bizi ahal izateko benetako aukera, Euskal Demokrazia eraikitzea da, hots, gure borondatearen eta subiranotasunaren gauzatze praktikoa ahalbideratuko duen egituratze politiko instituzionala.

Bide horretan, Bai Euskal Herriari, Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoaren aldeko herri ekimena abian jarri dugu, gure subiranotasuna eskuratzeko euskal herritar gisa bizitzea ukatzen digutenei, desobedien-

“
Inori ezin zaio
bere nazionalitatea
arbitrarioki
ezabatu
”

tzian oinarrituko dena.

Gure lehenengo ekintza Euskal Herri osoan zehar sinadura bilketa erraldoia bultzatzea izan da. Udazken partean sinadura guztiak Udalbiltzari aurkeztuko zaizkio, eskaera jakin batekin: euskal nortasun agiri ofiziala eta euskal zentsua egin ditzala.

Arrasaten San Joan jaietan eta beste zenbait egunetan jarri izan ditugu mahaiak sinadura bilketa hori gauzatzeko. Dagoeneko, 920 arrasatearren sinadurak dauzkagu eta ziur gaude askoz gehiago lortuko ditugula.

Asmo horrekin, auzoetako jaietan eta beste egun batzuetan ere berriro ipiniko ditugu sinatzeko mahaiak. Gainera, herriko hainbat tokitan sinadurak uzteko buzoiak jarri ditugu, besteak beste, Hire liburu dendan, Beinke opari dendan, Sagasta estankotan, Kimetz-Uarkape pilotalekuan eta Irati tabernan. Herriko hainbat talde eta elkarterekin ere harremanetan gaude beraien atxikimendua eskatzeko.

Nazional mailan uztailaren 29tik abuztuaren 6ra mendi martxa bat egingo da Hendaiatik Orreagara.

Beraz, badakizue, parte hartzera animatu eta sinatu!

Euskaldun bat, sinadura bat!

* Bai Euskal Herriari ekimeneko kidea



Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 50

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erlebedun hizkiak



ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

hildakoak

- Juana Segurajauregui Madinabeitia, uztailaren 10ean. 89 urte.
- Maria Aranzazu Iraeta Azcoaga, uztailaren 11n. 69 urte.
- Carmen Garcia de Cortazar Zabala, uztailaren 11n. 71 urte.
- Maria Asuncion Perez Ruiz, uztailaren 14an. 98 urte.
- Juan Fortuna Ferreira, uztailaren 18an. 83 urte.

ezkontzak

- Igor Uribesalgo eta Oihana Ochoa, uztailaren 8an.
- Francisco Morales eta Maria del Mar Sapo, uztailaren 15ean.

jaiotzak

- Eider Agiriano Roteta, uztailaren 1ean.
- Asier Daniel Zulueta Doalto, uztailaren 11n.
- Odei Sierra Jacue, uztailaren 13an.
- Eider Beloki Granados, uztailaren 15ean.

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 21

Goizean laino gutxi batzuk agertuko diren arren, arratsalderako aregotu egingo dira lainoak. Tenperaturak igo egingo dira.



LARUNBATA 22

Euri arriskua izango dugu, lainoek estali egingo dutelako gure zerua. Haizeak ipar-ekialdetik ahul joko du.



IGANDEA 23

Lainoak izango dira nagusi eta ekaitz arriskua izango dugu. Hai-zeak mendebaldetik joko du.

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91

mezak

San Joan parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

San Andres eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (erdaraz)

13:00 (erdaraz)

San Frantzisko eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:30 (erdaraz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata

19:00 (erdaraz)

Igandea

12:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50



AKELARRE

- Pastel txikiak • Tartak • Pastelak
- Teilak • Rellenoak • Bonboiak • Mantekilazko pastak

Zarugalde, 54 • Tel.: 943 77 00 71



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

21
ostirala

■ ZINEMA

Tango para Tres, 19:00-22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrerakoentzat.

23
igandea

■ ZINEMA

Tarzan, 17:00 (guztiontzat, ikuslearen eguna), eta *Tango para Tres* (13 urtetik aurrerakoentzat), 19:30-22:00, Alai zineman.

22
larunbata

■ ZINEMA

Tarzan, 17:00 (guztiontzat, ikuslearen eguna), eta *Tango para Tres* (13 urtetik aurrerakoentzat), 19:30-22:00, Alai zineman.

AHTren aurkako akanpada

24 ASTELEHENA

11:00 Tailerra: Energia eolikoa.
18:00 Akanpadako bilera.

25 MARTITZENA

10:00 Mendi martxa Urkulura.
19:00 Hitzaldia: Arrazakeria eta inmigrazioa.
23:00 Kontzertua: *Azido autoa*.

26 EGUAZTENA

11:00 Tailerra: bazterketa soziala.
19:00 Hitzaldia: Kapitalismoaren krisia.
23:00 Zinema: *Themroc* (Monterronen).

27 EGUENA

11:30 Tertulia.
19:00 Debatea: AHT.
23:00 Kontzertua: *Jauko Barik*.

28 EGUBAKOITZA

18:00 Umeentzako antzerkia.
19:00 Hitzaldia: Energia proiektu erraldoiak.
22:00 Kontzertua: *El Corazón del Sapo*.

29 ZAPATUA

11:00 Biodantza tailerra.
12:00 Umeentzako antzerkia.
18:00 Europar Batasunaren gailurrari erantzuna.
22:00 Kontzertua: *Juanito Piquete eta Lágrimas y Rabia*.

30 DOMEKA

09:00 Mendi martxa Elgeara.
18:00 Antzerki ekintza tailerra.

31 ASTELEHENA

11:00 Asanblearismoaz eztabaida.
19:00 Hitzaldia: Gay, lesbianoak eta transgenerikoak.
00:00 Mendi irteera txikia.

1 MARTITZENA

11:00 Maskulinitasun eta sexualitate tailerra.
19:00 Hitzaldia: kontrainformazioa.
23:00 Antzerkia.

2 EGUAZTENA

8:00 Mendi martxa Anbotora.
19:00 Hitzaldia: gaztetxeak.
23:00 Musika: jam session.

3 EGUENA

11:00 Tailerra: makrobiotika.
19:00 Hitzaldia: hondakin atomikoak.

4 EGUBAKOITZA

Goizean: Antzerki ekintza.
10:00 Kontzertua: *Dut, Non Demontre*.

5 ZAPATUA

11:00 Bizikleta itzulia Usakora.
19:00 Kalejira.
Gauean: jaia.

6 DOMEKA

17:00 Bilera: balorazioa.

24
astelehena

■ ZINEMA

Toy Story 2, 17:00 (guztiontzat, ikuslearen eguna), eta *Tango para Tres* (13 urtetik aurrerakoentzat), 19:00-21:30, Alai zineman.

■ FOLKLORE JAIALDIA

Nazioarteko Folklore Jaialdia ospatuko da Monterron Parkean. 22:30.

San Bartolome jaiak Uribarrin

Aurtengo gaia Baserriko Tresnak izango da. Uribarrin erabili izan diren tresnak erakutsiko dira, bai abeltzaintza, bai eta nekazaritzakoak ere.

ABUZTUAK 24,
EGUENA

10:30 Suziri jaurtiketa.
11:30 Meza.
12:30 Uribarri XI. herri-krosa.
13:00 Buruhandiak.
17:00 Aretu futbola: ezkongabeak-ezkonduak.
18:30 Pilota partidak.
20:00 Buruhandiak
22:00 Bertso saioa: Lizaso, Irazu, Mendiluze eta Murua.
23:30 *Hator* taldearekin, dantzaldia.

ABUZTUAK 25,
EGUBAKOITZA

11:00 Suziriak.
11:30 Meza.
12:30 Buruhandiak.
13:30 Auzoan txikiteoa.
14:30 Auzo-bazkaria.
18:30 I. Bolo Txapelketa.
20:00 Buruhandiak.
23:00 Dantzaldia, *Alaitz eta Mainerekin*.
02:30 Galtzontzilo eta kulero lasterketa.

ABUZTUAK 26,
ZAPATUA

10:30 Suziriak.
11:30 Umeentzako jolasak.
13:00 Buruhandiak.
16:30 XXIII. Mus Txapelketa.
20:00 Buruhandiak.
23:00 Erromeria.
23:30 X. Bolo Txapelketa.
03:00 Azken traka.

25

asteartea

■ ZINEMA

Toy Story 2, 17:00 (guztiontzat), eta *Alta Fidelidad* (13 urtetik aurrerakoentzat), 19:00-21:30, Alai zineman. Ikuslearen eguna.

26

asteazkena

■ ZINEMA

Alta Fidelidad, 19:00-21:30, Alai zineman. 13 urtetik aurrerakoentzat.

27

osteguna

■ ZINEMA

Alta Fidelidad, 19:00-21:30, Alai zineman. 13 urtetik aurrerakoentzat.

■ AIRE ZABALEKO ZINEMA

Aire zabaleko zinema saioan, *Atilano Presidente* eskainiko da. Monterron parkean, 22:30.

■ AUTOBUSAK IRUÑEARA

Autobusak antolatu dira, zapatuan Iruñean egingo den nazio agerraldian parte hartzeko. Garibaitik irtengo dira, 15:30ean. Txartelak Iratin, 1.000 pezetan.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Uztailaren 28an kontzertua izango da Gaztetxean. *El Corazón del Sapo*, *Escuela de Odio* eta *Facción* taldeek hartuko dute parte. 22:00.

■ ZINEMA

Datorren astean, honako emanaldiak izango dira Alai zineman: 26 eta 27an, *Alta Fidelidad*; 28tik abuztuaren 1era, *Yo, yo mismo e Irene*; eta ondoren, itxita egongo da zinema abuztuaren 26a arte.

■ BAZKARIA FERRERIASEN

Ferrerias kaleko jaietako bazkarian parte hartu nahi dutenek salgai dituzte txartelak Artea Enmarkazioak-en.

■ UDALEKUETAN GALDUTAKO GAUZAK

Txatxilipurdiren udalekuetan ibili diren umeek hainbat gauza galdu dute, eta Txatxilikoek bi poltsa bete gauza bildu dituzte. Beraz, zer edo zer faltan bota badute haur horiek, Txatxilipurdiren egoitzatik pasa daitezela.



Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12



astea bi hitzetan

■ Euskararen egoera

Euskal Soziolinguistikako Institutuak euskararen kale erabileraren azterketa egingo du 2001. urtean. Euskal Herri osoan egingo da azterketa, herriz herri, eta baita Mondragoen ere. Egitasmo horretan laguntzeko, 50.000 pezetako dirulaguntza onartu du udalak.

■ Elektrifikazio lanak

Bedoña eta Atxabalde inguruetako elektrifikazio lanak egingo direla jakinarazi da aste honetako Gobernu Batzordean. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Iberdrolaren plangintzaren barruan

sartzen dira lan hauek. Behar den tokietan potentzia gehiago eskaintzea da helburua, hau da, etxebizitza gehiago eraiki behar badira, edo dau den eraikinek edo etxebizitzek potentzia gehiago behar badute, horietarako asetzeko.

Guztira, 7.235.386 pezetako inbertsioa egingo da. Gipuzkoako Foru Aldundia, Iberdrola eta Arrasateko Udalaren artean ordainduko dira lanak.

■ MU-Gaia

Joan den astean, Mondragon Unibertsitateak beste hitzarmen bat sinatu zuen, Gaia ize-neko Telekomunikaziotako

clusterrarekin. Bai unibertsitateak bai eta elkarteak ere indartu egingo dute alor horretako profesionalen presuntakuntza. Izan ere, telekomunikazioen alorrean teknikariak falta dira. Gaia elkar-tearen arabera, 4.600 hain zuzen ere.

■ Udalekuak

Pasa den ostiralean ospatu zuen udaleku amaierako festa Txatxilipurdi Aisialdi Elkarteak, lehen hamabostaldian parte hartu duten haurrek agur esan, eta bigarren hamabostaldian parte hartuko dutenei ongi etorria emateko.



■ Auzolandegietan txandakatuz

Uztail hasieratik Lezetxikin egon diren gazteak ordezkatzera iritsi zen beste gazte talde bat pasa den ostiralean. Uztaila amaitu bitartean, gune arkeologikoko inguruak eta bideak garbituko dituzte.

Guztira 20 lagun etorri dira, 18 eta 20 urte bitarteko neska-mutilak. Dena dela, inguruak txukuntzeaz gain, ondo pasatzeko helburuaz ere etorri dira Arrasatera.

“Gure arteko harremana antzezlanaren antz handia izan du. Bera (Anne Igartiburu) oso azkarra da, baina ez dauka esperientziarik, antzezten duen ile apaintzaileak ikasteko duen gogo berbera dauka. Ni nere pertsonajearen berdina naiz, arrazionalagoa. Pigmalion bat izan da, inozentzia eta esperientzia aurrez aurre”.

CHEMA MUÑOZ

El Diario Vasco
(2000.7.15)



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EAJren mozioa udalbatzarrari

Opor aurreko osoko bilkura atzo egin zen Arrasateko Udalean. Aurrez ikusita zegoen 14 gaiko zerrendari, mozio berezi bat gehitu zitzaion urgentzia bidez. Eta azken hau izanda, duda barik, bilkurako gairik esanguratsuen.

Izan ere, asteburuan Malagan gertatutako hilketaren aurrean eta inguruko beste udal txetxe batzuetan egindakoari jarraituz, Arrasateko EAJk gaitzespen-mozioa aurkeztu zuen.

Hiru puntu ziren nagusi testuan: batetik, "norbanakoen eskubideak eta eskubide kolektiboak hausten dituen ekintza eta adierazpen guztiak gaitzesteko eskaera eta gatazka konpontzeko bide bakarra elkarriketa eta oinarri demokratikoen errespetua dela onartzea.

Bigarrenik, Jose M. Martinen heriotza gaitzetsi zuen EAJk, eta haren senitarteko eta lagunei elkartasuna adierazi zien. Eta hirugarrenik, ETARI indarkeria jarduerak bertan behera uztea exijitu zioten.

Arrasate Press inprimategira bidali zenean, oraindik



Atzo uda aurreko azken osoko bilkura egin zuten udal ordezkariak.

udalbatzarra egin barik zegoen, beraz, ez dago jakiterik zer gertatu zen. EAJko presidentek, Karlos Garatek, ez zigun ezer baieztatu, baina litekeena da Arrasateko EAJk, alderdiaren zuzendaritza batzordearen esanei jarraituz, Gobernu Batzordetik ateratzea, EHk mozioa onartu ezean. Hori horrela izanez gero baina, egoera politikoak berdintsu segituko luke: EAK segitu egingo luke udal gobernuan, EH eta EBekin. Gobernuak 12 zinegotzi izango lituzke eta opo-

sizioak, 9.

BESTELAKOAK

Baina, mozioaz gain, beste gai batzuk ere landu ziren atzoko bilkuran. Cerrajera urbanizatzeko egitasmoaren barruan agertzen den biribila egiteko behar diren lursailak jabegabetzeko lanetan hasia eztatzen eta udalaren Ingurumeneko Kontseilu Sozialaren araudia onartzeko proposamena ere egin zen, besteak beste.

Gaztetxe berria

Herriko gaztetxe berria eraikitzeke pausoak ematen ari dira poliki-poliki. Horretarako, hainbat bilera egin dituzte Arrasateko Udaleko Gazteria eta Hirigintza Sailak eta gaztetxe berria eraikiko duen enpresak, UR&MA-k.

Hasteko, gazteteak dituen beharrak zehaztu dira. Horren arabera, beheko partean areto zabal bat izango du gaztetxe berriak, oraingoaren antzekoa: kontzertuetarako agertokiarekin, tabernarekin... gune zabal bat, hain zuzen ere.

Osterako espazioan lokalak egitea eskatu da. Kopurua oraindik zehaztu barik dago, eta baita gela bakoitza zertarako izango den ere. Hori dena beharren arabera zehaztuko da. Hala ere, argi dagoena zera da, gela bakoitzak erabilera asko izango dituela, balioanitzak izango direla.

Datu hauekin, UR&MA enpresak gaztetxe berria eraikitzeke aurreproiektua idatziko du eta horren arabera zehaztuko dira behin betiko beharrak eta, jakina, behin betiko proiektua.

Udalaren baimena legezkoa da

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, Musakolatik Fagor Ederlanerainoko kable eraikitzeke baimena legezkoa da. Halaxe jakinarazi da aste honetako Gobernu Batzordean. Modu horretan, arrazoia eman zaio Arrasateko Udalari eta, beraz, ez da bete behar Arartekoak gomendatutakoa, alegia, Iberdrolari emandako baimena ezeztatzea.

Kontua da, Fagor Ederlanek argindar gehiagoren beharra duela eta goi-tentsioko kable bat eskatu zuela. Iberdrolak proiektua egin eta udalak erai-

kitzeke baimena eman zuen. Horrekin batera, kable horrek zeharkatuko dituen lurren jabe talde batek proiektuaren aurka egin zuen, ingurumenari kalte egingo diolakoan. Besteak beste, Arartekoarengana jo zuten Arrasateko Udalak emandako baimena legezkoa ez zela adieraziz, ez baitzuen Foru Aldundiaren baimena eskatu. Horren aurrean, Arartekoak gomendatu zuen Iberdrolari emandako baimena balio gabetzea. Udalak Foru Aldundira jo zuen eta honek arrazoia eman dio.

Gaitzespena



Lehendakariak egindako deialdiari jarraituz, kale bilkura izan zen astelehenean Mondragoen.

Modu horretan, asteburuan izandako atentatuak gaitzestu zituzten Herriko Plazan bildutakoek.

Kanpadendak Santa Barbaran

Abiadura Handiko Trenaren aurkako kanpaldia egingo da Mondragoen, datorren astean hasi eta abuztuaren 6a arte. Hamalau egunez, Santa Barbara eta inguruak kanpadendez beteko dira eta gerturatzen direnek ekitaldi ugarietan parte hartzeko aukera izango dute: gai ekologikoei buruzko hitzal-diak, kontzertuak, mendi ibilaldiak eta lantegiak izango dira egunero; baita umeentzako ludoteka eta antzerki-saioak ere. Horrez gain, kanpaldian bertan bazkaltzeko eta afaletzeko aukera izango da, antolatzaileen esanetan, modu merkean, gainera.

Hori guztia AHTk Debagoienean izango duen eragin kaltegarria salatzen.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, Udalatx eta inguruak izango dira kalte gehien jasango dituztenak. Garagartzako guneretan



Kanpaldian parte hartzeko deialdi zabala egin dute.

hiru tunel eraiki behar dira Udalatx azpitik: Elorriora joateko bata, Angiozarrera joateko bestea eta horiek biak lotuko dituen hirugarrena.

Horrez gain, AHTk energia beharraren gorakada ekarriko du eta horrek ere eragin negatiboak izango ditu antolatzaileen esanetan, energia nuklearra erabili beharko bultzateke tren ibiltzeko.

Bestalde, tren horren ibil-

bidea Euskal Herrian ez dela bideragarria ere uste du talde honek. Kontua da, Abiadura Handiko Trenak 250-300 kilometro orduko abiada har dezakeela eta horren ondorioz, ahalik eta ibilbiderik zuzenena behar duela; hori ia bideraezina da Euskal Herriko orografarekin.

Hortxe, beraz, arrazoiak, hortxe gomita eta hortxe aukera. Joatea, libre da.

MUren egitasmoa onartuta

Mondragon Unibertsitateak sortutako lizentziatura berria onartu egin du Espainiako Hezkuntza Ministerioak: Hizkuntzen Psikopedagogia. Datorren irailean ekingo dio ibilbide berriari, 40 bat ikaslerekin. Hizkuntzak modu egokian erakusteko profesionalak sortu nahi ditu MUK, eta horretarako ingelesa, frantsesa, gaztelania eta euskara landuko dira. Gainera, oraingoz ez dago ikasketa hauek egiteko beste aukerarik. Mondragon Unibertsitatea da eskaintza hori egiten aurrenekoa.

Eta ikasketa berriak izateaz gain, irakasteko modua ere berezia izango da. Bi modu izango dira aukeran: lanean ez dabilen jendeari zuzendutako bata eta lanean dabilen jendeari zuzendutako bestea.

Garraio publikoa hobetzekotan

Debagoieneko garraio publikoa hobetzeko egitasmoa aztertzen hasi dira Mankomunitatean. Bost urteren buruan, bailarako garraio zerbitzuak aldatu nahi dira eta, bide batez, beste lurralde historikoekin dauden loturak sendotu.

Bi ikerketa lan egin dira horretarako. Batetik, bailarako herrien arteko loturak zer nolakoak diren. Bestetik, Euskadiko hiru hiriburuekin dagoen zerbitzua aztertu da.

Orain arte segurua den erabaki bakarra zera da: autobus zerbitzuak PESA etxea arduratuko dela datozen 12 urteotan. Garraio publiko berriaren aurrekontuari dagokionez, berriz, 380 milioikoa izango litzateke.

Horrez gain, aurrez ikusi-

ta dauden azpiegiturak ere aztertu dituzte bi agiriotan. Eibar-Gasteiz eta Beasain-Durango autobideak eta Arrasaten Olandixoko tunela epe barruan ez badira egiten, garraio publikoaren aztertutako egitasmoak ezingo luke aurrera egin.

Debagoieneko kontuekin segituz, bailarako zortzi herriek eta Aramaiok osatzen duten eremua, EAeko laugarren hiri bihurtu nahi du Eusko Jaurlaritzak.

Orain arte, Debagoiena baztertuta izan dutela onartu dute Euskadi eta Gipuzkoako erakundeetako ordezkariak. Eta egoera honi buelta eman nahi diote.

Irailerako, behin betiko txostena egin aegotea espero da.

Jaurlaritzako ordezkariak Elgean



Juan Jose Ibarretxe, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Josu Jon Imaz, Industria Sailburua, Patxi Ormazabal, Ingurumen Sailburua eta Eolicas de Euskadi-ko ordezkariak, Elgeako parke eoli-

koa bisitatzeko izan ziren asteartean. Lehendakariaren esanetan, dagoeneko 100.000 biztanlerentzako energia ekoizten du Elgeako zentralak eta orain arteko emaitzarekin gustura daude.



ESKULANGILE TREBEAK!

Maalako jaiak izan zirela-eta, Toki-Argi erretiratuen etxekoek urtean zehar egindako eskulanen erakusketa antolatu zuten asteburuan. Ikus dezakezuen bezala, etxea ondo apaintzeko moduko makina bat artisautza lan egin zituzten.

Hona hemen Garagartzako Realeko Txarrihanka peñak Errioxara egindako irteeraren fede ematen duen argazkia. Hau El Villar herriko bodega batean, hamarretakoarekin sabela majo bete ondoren atera zuten.



DATORREN URTE ARTE!



Jende mordoia elkartu zen lehengo egunean Umezaintzan. Arrazoa: ikasturte amaiera zela-eta, hango 200 ikasleek eskaini zuten ikuskizuna. Gurasoek eta aiton-amonek, adurra zeriela, adidi jarraitu zituzten artista gaztetxoek saioak.

SAN KRISTOBALEN OMENEZ



Aramaio, Oleta, Legutio, Otxandio eta Debagoieneko jende mordoia igo zen San Kristobaleko pagadira, santu horren egunean. Meza, dantzaldia eta kantu saioaren ondoren, Uribarriko auzokideek egindako pintxo eta paella-jana ederra izan zuten guztiek.

AISIALDIA ETA LANA



Ez pentsa oporretan jende gaztea gora begira egoten denik. Honakoak, AEDko Gazte Sailaren eskutik, garbiketa lanak egin eta txosnetan laguntzen ibili ziren hiru egunez, Euskal Herria Zuzenean, Piztu Kultura Elkarte eta Irulegi Irratiak antolatutako jaietan, Arrosan, Behe Nafarroan.

EZKONBERRIAK...



Argazki Bideo Zapping

Cesar eta Petry dira argazkiko ezkonberriak. Ekainaren 10ean izan ziren ezteiak, San Frantzisko elizan.

Ezkon bidaian, aldiz, Tunezeko eguzkiaren bila joan ziren.

Zorionak eta urte askotarako!

... ETA DIAMANTEZKO EZTEI BIDEAN



Uztailaren 11n, 60. ezkon urteurrena ospatu zuten Martin Zubizarreta Arzamendi eta Edurne Zabaleta Mendikutek, eta atzo bezala, gaur ere bikote polita osatzen dute.

Zorionik bero-beroenak familia guztiaren partetik, eta baita guretik ere!



HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



MARKO-JARTZEAK ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kirologian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia Institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugaide, 3- 1-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezlifo, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzezlifo, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analsi klinikoak, R-X) Ferrerrias, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbaigliak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerrias, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerrias, 56 ☎ 943 79 44 22

Erdialdetik mugitu barik, jaiak aukeran

Maalako Errebalera salto egitea tokatzen zaigu aste honetan. Kalearen izenarekin bat datorren zaindarien eguna da zapatuan: Maria Magdalena; beraz, auzoko jaiak ospatzeko garaia. Mondragoeren erdi-erdian dagoenez, gainera, jai horiek batekin baino gehiagok ezagutuko ditu gertutik eta ezagutzen ez dituenak, berriz, asteburuan izango du aukera.

Izan ere, Mondragoeren kale esanguratsurik badago, hauxe da horietako bat: Maalako Errebala. Antzina, haresiz kanpoan kokatutako kalea, orain herriaren erdierdian dagoena.

Eta erdialde horretan gertatu zen, hain zuzen ere, XX mendearen Historiaren gertaera nabarmenetako batzuk.



Maalako Errebala haresiz kanpo zegoen hiru auzoetarikoa bat zen.

HILKETAK

1934. urteko urriaren 5a ahaztezina izan zen Maalako Errebalean. Orduan izandako gertaera latz eta gogorrek oraindik ere gogoan diraute; beldurra, tiroak eta azkenik, Mar-

celino Orejaren hilketa.


Josemari Velz de Mendizabalek plazaratu berri duen liburuan agertzen da goiz hartako kontakizuna: metro batzuetara bizi zen, Toribio Agirrereren etxean, Marcelino

Oreja. Goizeko 8etan bost gizon joan zitzaizkion bila, eskopetaz eta pistolaz armaturik...

Dagoberto Resusta atzetik zetorren.

Orduan entzun ziren tiroak... Ricardo Azkoagak, oin batean zauriturik, bidera salto egin, handik ibaira eta uretan gora joanez, Olarte kalera irten zen... Bere kabuz igo ezin zuen paretaren oinean zetzan Orejaren gorpua, besoak zabalik. Lau zauri zituen. pistola tiro bat bizkar hezurrean, beste bi buruan eta laugarrena, eskopeta tiroa, eskuineko besoan. Handik metro batzuetara, Dagobertorena zetzan, Batzokiko frontoiaren pareta ondoan.

Concepción Tamayo
DERMATOLOGOIA
Laser tratamenduak
Maalako Errebala, 23-2A
Tel.: 943 77 05 57



Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
Tasazioak
Fiskal Aholkularitza
Errentamenduak
Kontratuak
Udalatx
InmobiliariA
Maalako Errebala, 27 behea
943 79 59 99

ARANBURU
JOSTUNDEGIA
Urte askoko esperientzia
zuen esku
Maalako errebala, 23
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 07



Bitxitegia
Erlojutegia
Maala 5 • Tel.: 943 79 19 25




EZARKI
OINETAKO KONPONKETAK
Maalako Errebala, 8 • ARRASATE



Barceló Bidaiak
Maalako Errebala, 33 behea
Tel.: 943 79 70 11

KYMETZ
Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak
Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE



OKENDO
KIROLAK
Maalako Errebala, 13 behea
Tel.: 943 79 92 76
ARRASATE

Monte
taberna
Maalako Errebala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Maalako jaiak

Egitaraua

Uztailak
22

08:00 Etxaflero
jaurtiketa.
16:00 Haur jolasak
eta
txokolatada.
19:00 Trikitixa.
21:00 Afaria,
Estradetan.
22:30 Dantzaldia.
23:00 Zuzko
erruberak.

Uztailak
23

- Arrabalean hil diren guztien oroimenez, meza San Frantzisko elizan
- Jubilatu guztientzat, luntxa, Plus Ultra tabernan.

JADE

ILE APAINDEGIA
Maala, 21 • Tel.: 943 77 16 31

DEBA
GARAIA

Inmueble
eta finantza
agentzia
Maala, 11
943 77 13 02

ALTUNA
L
T
U
N
A
LURRINDEGIA
Maalako Errebala, 19
Tel.: 943 79 14 23

txontxunberde

Maalako errebala, 23 • Tel.: 943 77 18 47

FOTO
**Enrique
Martín**
imagen
Maalako Errebala, 11 • ARRASATE

UNITED
COLORS OF
BENETTON.
Maala, 13 • Tel.: 943 79 50 78


ARREGI


URREA
BITXITEGIA
Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 77 02 23

**Plus Ultra
taberna**
Maalako Errebala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

ARREGI
Arte eta
enmarkazioak
Maala, 8 • Tel.: 943 79 56 44

AE ELKORO
• Elektrizitatea
• Antenak
• TB, Bideo eta Hifi konponketak
Maalako Errebala, 29 • Tel.: 943 79 45 99 / 943 79 18 86

Casa Ceciaga

Arrasaten 1906. urtetik

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



Garagarza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

ARROZTEGIA
LAGUN

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1 - Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Igeltsoak - Apaintzea

Pako eskaiolak S.L.

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak

Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

Eskatu aurrekontua.

Nafarroa etorbidea, 23 MI 1

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Gogoa nora... zangoa hara!

Abuztua izan da aspalditik eguneroko bizitzaren basamortuan egindako ibilbidearen atseden hartzeko oasia. Hilabete horren izenak askatasun eta lasaitasun ametsak piztu izan ditu herritarrengan. Hala ere, milurte berria datorren neurrian, moda berriak datoz... ala ez? Eta nolakoak dira arrasatearrak, oporetan joateari dagokionez? Leku ezagunak zapaltzea ala bide berriak zabaltzearen lagunago ote dira? Guk, horiei erantzuna eman nahian, iparrorratza hartu eta herriko bidaia agentzietara jo dugu. Zer topatu dugun jakin nahi?

Lehen argibideen araberak, arrasatearrak ez omen dira iraultzailegiak bidaia kontuetan, eta aztarna guztiek datorren milurtean lehengo ohiturek garaile izaten jarraituko dutela iragartzen dute. Artour eta Halcon bidaia agentziek argi eta garbi dioskue: arrasatearren hobespeneak kostaldera seinalatzen dute. Agentzia horietako bezeroek penintsulako mediterraniar kostaldea dute gustuko. "Salou eta Benidorm dira klasikoak, eta aurten ere ez dute kale egin", dio Anak, Halcon Bidaiak agentziakoak. Adinari dago-


kionez, badira desberdintasun batzuk: haurtxikiak dituzten familiak Mediterraneo kostalde zabalean sakabanatzen dira, eta podiuma ondokoek osatzen dute: Costa del Sol, Costa Dorada eta Costa Brava du horietatik gustukoena. Gune hauetara joango da aurten bidaian irtengo diren mondragoetarren %60.

ITSASOAZ BESTALDEAN

Hala ere, itsasoa zeharkatzea ere uda guztietako kirol bihurtu da hainbat eta hainbat familiarentzat; hegazkina hartu eta Balear edo Kanariar uharte

goxoetara joaten dira bidaia-rien %20. Hemen ere, bila ari direnak eremuak markatzen ditu. Artour agentziako Elenak honela dio: "Lasaitasun eta patxada nahi dutenek Menorca aukeratzen dute. Gazteek, martxa eta mugimendu gehiagoren bila, Salou eskatzen dute sarritan. Kostaldeari dagokionez, aurten Cadizerako bidaia eskatu du lagun mordo batek."

Hondartza, itsasoa eta ezusterik emango ez duen eguraldi eguzkitsua herritar gehientsuen lehen apustu bezala sendotu da. Hala ere, kanpoan ematen den denborari dagokionez, izan dira aldaketarik azken urteotan. Artour eta Halcon agentzietakoek horrela azaltzen digute: "Sumatu dugu, gero eta gehiago, oporraldiak mailakatuta daudela. Alegia, lehen jende gehiena abuztuan joaten zen kanpora, eta hilabete osoa ematen zuten asko izaten ziren. Orain, Aste Santuan edo Gabonetan ere irtetea eta abuztuan denbora gutxiago egitea dute nahiago." Hilabete osoan



Bidaia-rien %20ak itsasoa zeharkatzen du.



Europarunzko joera ere handitu da.

hutsik geratzen ziren kaleen irudia historiara pasa da; orain, jende gehienak hamabost egun ematen ditu kanpoan, hori asko jota. Atsotitzak dioen moduan, "ona eta gutxi, hartu gabe ez utzi".

DISTANTZIAK MURRIZTEN

Jendearen gehiengoak Mediterranioko eguzkiaren ferekaren bila egiten du alde; baina, sasoi batean egundoko bidaia luzea zena, orain distantzia laburreko kontu bilakatu da; horrela katalogatzen dute, behintzat, bidaia agentziek. Izan ere, jendea gero eta urrutiago joaten da: pentsa, lehen Kariberako bidaia munduaren azken puntarainoko

ibilbidea iruditzen bazitzaigun, orain gero eta maizago egiten den abenturaxoa da: agentzien esanetan, gazteak eta ezkonberriak dira, batik bat, Karibera bidaiatzen dutenak.

Eta Karibera, hor nonbait izatetik gure esku ahurrean izatera pasa bada, berdin gertatu zaie beste paraje batzuei. Mondragoetarren rankingean, hauek hirugarren postuan

Lehen egundoko bidaia luzea zena, orain distantzia laburreko kontua da. Jendea gero eta urrutiago doa.



Austria gustuko du jendeak, baina garestia da.

daude, penintsula eta uharte-en ondoren; %10 joaten da normalean Txekia, Hungaria, Italia, Egipto edo Grezia bezalako lurraldeak esploratzera. Hemen ere, zenbat bidaiari, hainbat aukera daude. Gazteek, adibidez, Europan egiteko zirkuituak atsegin dituzte, eta kontinente zaharrean, Italia eta ekialdeko lurralde xarmangarriak daude abenturazaleen ikusmiran. Baina, horrelako abenturaxoak ez dira gazteentzako bakarrik, ez pentsa. Begira, bestela, guk aurkitu ditugun bidaiari hauek.

KONTAKIZUNAK

Europarantz doa, hain zuzen ere, Narbaiza familia. Jendearen eta telebistako erreportajeen esanei kasu eginez, Praga eta Budapest aldera joatea erabaki dute eta Ecuador agentziara joan dira oporraldi hori antolatuzera.


Familiako sei kide doaz, ume bat eta guzti. "Hegazkin ez bidaiatzeko modurik bizkorrena delako; hara joaten garenerako hotela ere hartuta izango dugu, eta gero han, automobila alokatu eta inguru dena ikustera goaz".

Bidaietan "adituak" dira Narbaizatarak; urte asko daroate munduan barrena eta deneztarik egin dute dagoeneko: kanpinean ibili dira, antolatutako bidaietan, euren kabuz...

"Hasieran hobe izaten da antolatutako bidaia batean joatea, mundu hori ezagutzen joateko. Hori bai, jende gaztea edo ausarta izanez gero, nor bere kabuz joan eta ikustea ere ez da batere txarra".


Europa du gustuko Narbaiza sendiak, "baina, oso garestia da. Denbora eta dirua dira bidaietako elementurik garrantzitsuenak". Dirua eta astia eskura izanez gero, Italiara joateko gomendioa egin digu familia bidaiari honek.

Eta Narbaiza familiako



Hego Afrika bezain urrun joatea modan ipintzen da.

ume zein nagusienak abiatuko badira Europa aldera, Arrasateko beste sendi batek ere maleta eta pasaporte hartu eta lurralde ezezagunetan zehar murgilduko da. Hauek Egiptora joan ziren Aste Santuan: "Gurasoekin egiteko bidaia polita nahi genuen, erosotasun osoz. Gainera, Egiptoko kultura ezagutu nahi genuen", diosku kide batek. Erabaki eta egin: Eroski Bidaiak-era



Egiptok gero eta bisitari gehiago jasotzen ditu.



ari da.

joan eta 11 eguneko itsas bidaia agindu zuten Nilo ibaian zehar. Familia honen ustez, Egipto ez dago hain urruti. "4 edo 5 orduko hegaldia da. Hala ere, oso desberdina da kultura hura, eta hasiera batean harridura geratu ginen. Baina, egiptoarrak oso jatorrak eta zintzoak dira", diote. Piramideak eta tenpluak dira gehien gogoratzen dutena. Hori bai, joatekotan, udazken eta uda-

berri artean egitea aholkatzen dute; bestela, bero itogarria egiten omen du.

Aperribai familiak bezala, arrasatear askok egin zuen iaz Egiptora irtenaldia. Eroski Bidaiak agentziako arduradunak, Marisak, esaten digunez, iaz Egiptora joateko moda izan zen bezala, aurrean Grezia, Turkia eta Madeira izan dira jaun eta jabe: tokirik gabe geratu dira leku horietarako hegaldi eta zirkuituetan.

URRUTIRAGO

Distantzia ertainetatik handietara saltoa, baina, jende gutxi egiten duen zerbait da: pentsa, Madagaskar, New York, Zeelanda Berria edo Yemenera, %10 inguru baino ez da mugitzen urtero. Eta horiek izaten dira abenturazaleenak. "Gero eta gehiago eskatzen du jendeak hegaldia bakarrik: handik aurrera, eurak antolatzen dira. Hegaldi gehienak Hego Amerika aldera izaten dira", dioskue agentziatarako arduradunek.

Aurkitu dugu multzo

horretan sartzen den arrasatearren bat zein beste. Azken talde honetan kokatzen da Xabin Lara. Urrutira joateko gogo sartu eta Hego Afrikara abiatzea erabaki du bere neskalagunarekin batera. 24 eguneko bidaia prestatzen ari dira, Hego Afrika goitik behera ezagutzeko asmoarekin: "guk egiten duguna da, lekuei buruzko informazioa batzen joan. Ondoren, gure aurrekontua zehazten dugu eta horren arabera, 3-4 toki aukeratu". Behin hori ezarrita, Barceló bidaia agentziara jo dute gure lagunek eta han eskuratutako azken informazioarekin erabaki dute nora joan. "Johannesburg-en atera eta Ciudad el Caboraino goaz, tartean dauden parajeak ikustez batera. Paisaiak, kultura eta bertako jendea ezagutu nahi ditugu. Horretarako, hegazkinez goaz haraino eta autokarabana alokatuko dugu hasierako egunetan; automobila, ondoren". Orokorrean, guztia ikusteko asmoarekin badoaz ere, egitarautxo bat prestatuta eramango dute. "Planen bat eginda eramatea komeni da; gero, tokian bertan aldatu edo molda daiteke, momentuko nahien arabera.

Abentura apur bat ez dator gaizki, ezta? Hala ere, zerbait eginda eramanez, bestela, behin hara helduta zer egin jakin barik egotea ez da batere ona".

Baina, planaz gain, mota horretako bidaia batean oso garrantzitsua da alde aurreko prestakuntza. Kasu horretan, inguru hartan sortzen diren gatazkak non dauden zaindu kontuz ibiltzeko, txertoak ipini, dirua aldatu... Komenigarria da, baita ere, tokian tokiko bizimoduaren berri jakitea, hau da, zein azpiegitura dauden (hotelak, autoak alokatu daitezkeen edo ez...); horren arabera antolatu behar da bidaia. Eta behin hau dena eginda, hegazkina hartu eta ospa!

Hortxe ditugu, bada, arrasatearren lehentasunak; esan bezala, urrutiegi ez goaz oraingoz, baina urrutiratzen ari gara, bai. Eta gu geu ere iraila arte joan egin behar garenez, oporraldi onak opa dizkizuegu irakurle guztiei, urrutira edo gertura zoaztenei eta, jakina, baita etxean geratzen zaretenei ere. ■

Ubane Madera
Leire Kortabarria



Eguzkiaren bila doaz asko.

JESUS MARI BARRUTIABENGOA (ALOÑAKO ENTRENATZAILE O

“Jendea ilusio barik da

Azkenengo bi urteetan Aloña Mendi futbol talde nagusia entrenatzen aritu da eta aurretik urte asko egin zituen Mondran. Jokalari bezala hasieran, nesken entrena-tzaile gero, gazte maila zuzen-tzen ondoren, eta Oñatira joan aurretik lehen errejio-naleko eta preferenteko tal-deak izan zituen beregain. Orain Pasaiara joango da bizi-tera eta dagoeneko han ere mutiko talde bat hartzekotan dabil Zigorrolako txistularia. Baina, beste lan bati ere ekin behar dio: aita izateari.

— Musika irakaslea, fut-bol jokalaria, txistularia, fut-bol entrenatzailea eta laster aita. Nola da posible hori dena?

— Futbol jokalaria hoge-i urte arte. Gero musika eta pia-no eskolak ematen hasi nin-zen Donostian 26 urte arte. Arrasatera itzultzean, lagun taldearekin Zaldibarko txa-

pelketa jokatu nuen eta orduan, Mondrako zuzendaritzan zebi-len batek entrenatzerik nahi nuen galdetu zidan. Nesken taldea aukeratu nuen.

— Zergatik nesken tal-dea?

— Neskek sekulako poz-tasunak eman zizkidaten eta ez bakarrik Gipuzkoako kopa irabazi genuelako, baizik eta eurengandik gauza asko ikasi nituelako. Oso ezberdina zen eurekin lan egitea, baina atse-gin nuen. Gogoratzen dut entrenamendu batean ez zute-la baloia buruarekin jotetik nahi. Ordubetez ibili ginen buruarekin joteko agintzen, baina gero lortu genuen. Lagun handiak egin ginen.

— Gaur egun zer aukeratuko zenuke?

— Futbol jokalaria izan nahiko nuke, lan modura eta entrena-tzaile modura. Orain

utzi egin dudan arren, Pasaiak jadanik talde bat eskaini dit. Baina, gazteen talde bat har-tuko nuke.

— Noiz hasi zinen mutilak entrena-tzen?

— Neskekin hiru urte egin nituen eta gazteekin urtebete. Oso talde ona izan

nuen, baina taldea egina zego-en, Juaninak osatutako taldea zen eta niri eman zidaten; lehen errejionala hartu nuen, entre-

natzaile barik gelditu ziren eta. Beste bi urte

egin nuen prefe-rentean. Urte-bete gehiago egin nezakeen, baina zuzen-daritzak Juani-na aukeratu zuen lan horre-tarako eta ni kalera bota nin-duten.

“Ez da logikoa Mondra lehen errejionalean egotea, gutxienez preferentean egon beharko litzateke”



abil”

— **Eta orduan Aloña Mendin hasi zinen.**

— Komunikabideetan utzi egingo nuela esan eta hiru egunera Aloñatik deitu zidaten. Iaz oso denboraldi ona egin genuen, bigarren gelditu ginen eta igoera aldiaren ere bigarren gelditu ginen. Oso zaila da promozioa.

— **Preferentera jaitsi berri zen taldea hartu zenuen Mondragoen. Nola gogoratzten dituzu garai haiek?**

— Lehen errejonalean nengoen. Bi taldeek elkarrekin entrenatzen zuten. Garai gogorak izan ziren. Behin, neuk zuzendu nuen partida bat Elgoibarren, bosniarra Bosniara zihoalako. Taldea orduan, nire ustez, kontzentrazio gutxiarekin ari zen, baina logikoa zen, zeuden egoeran egonda.

Partida hartan, Elgoibar igoera aldiko lau taldeen artean sartzeko zain zegoen eta 0 eta 1 irabazi genion, baina ez neu egon nintzelako; izan ere, asteon ika-mika txiki bat ere izan genuen entrenamendu batean. Talde ona zen, gaur egun talde handiagoetan ari diren jokalariek ziren, Golo, Oxel, Moreno... Partida harek balio izan zuen nik talde hori entrena nezakeen ikusteko.

— **Jokalariek ere izan zinen, Iturripeko garaietakoa. Ezkerrekin jokatzen omen zenuen.**

— Oso denbora gutxi egon nintzen Mondran jokatzen. 17 urterekin gorago

jokatzea merezi nuen, baina orduan zegoen egoera zela eta, beste bat igo zuten. Bonbarekin bi urte ere egin nituen, baina menisko arazoekin hasi nintzen. Errekuperatu eta gero, titular izan nintzen, baina bat-batean aulkian nengoen. Gero zortzi bat urte egin nituen futboletik erabat aldentuta.

— **Zer esango zenuke futbolaren egoeraz Arrasaten?**

— Arrasateko egoera aspaldian ez dut askorik eza gutzen, baina jendea ilusio barik dabilela esango nuke; ez da logikoa lehen errejonalean egotea; gutxienez preferentean egon beharko litzateke. Mondrak talde asko ditu eta horretan lan handia egingo da, baina zuzendaritzari dagokionez, niri tokatu zaidana behintzat, hiru edo lau lagun baino ez dira eta hiru lagunek ezin dute Mondra bezalako tade bat behar bezala eraman. Oñatin, esaterako, hamar lagun ari dira. Hemen uste dut pertsona bakar batek agintzen duela, Patxi Yarzak. Ni ere berak bidali ninduen taldetik, nahiz eta lehendakariak nik segitzea nahi, baina Yarzak Juanina ekarri zuen. Seriotasuna behar da.

— **Eta aurten Mondra igoiko da?**

— Zaila da, maila zaila da; entrenatzaile berria gai da, baina esperientzia falta dauka. Esan didatenez, denboraldi ona egin du, beraz agian gauzak ondo joango zaizkio. Onena opa diot. ■

EMAKUMEON TXOKOA

Prestakuntzarako ikastaroak Udaleko Enplegu Zerbitzuan

Makina erremienta eta dolakuntza ikastaroa.

- Etxez etxeko zerbitzurako
- Soldadura ikastaroa
- Autoenplegu ideia abian jartzeko

Lan orientabide ikastaroa

Lan mundura hurbildu nahi duten emakumeentzat

- urritik abendura 50 ordu.
- izena emateko epea iraillean zabaltzen da.

Bestelako ikastaroak

- Autoestima ikastaroa.
- Hazkunde pertsonala.
- Irakurtza tailerra; irakurtzea gustoko baduzu, hilean behin Monterronen elkartuko gara eleberriak, ipuinak ... irakurtzeko.

Izen ematea iraillean hasita Emakume Sailean.

Argazki lehiaketa

“Gazteak eta arrazakeria”

- Epea: 2000ko urriaren 11n.
- Sarien artean, emakumezkoen ikuspuntua/mundua/errealitatea hobekien islatzen duen argazkiari sari berezia.

Arrasateko emakumeen kontseiluaren bilera

- Irailak 6 asteazkena, arratsaldeko 16:00etan.
- Arrasateko Udaletxeko 3. solairuan.
- Bilera irekia; aukera berdintasuna eta emakumeen partehartzea bultzatzeko.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sailean, deltu 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonoetan. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara. Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

"Sorguñkale"ko jaiak

Uda garai honetan jaiak ugaldu egiten dira Arrasate aldean. Datorren astean esaterako, Ferrerías kaleko jaiak hasiko dira. Alde Zaharreko kalerik ezagunena da Ferrerías, Portaloian hasi eta Gazteluondoraino heltzen dena. Jai hauek aspalditik ospatzen dira eta aurten ere, asteazkenean emango zaie hasiera. Jaiak antolatzen hasi zirenetik gaur egunerarte izugarri aldatu da egitaraua. 1963.urtean adibidez, honako bertso honen bitartez eman zitzaion hasiera jaiari:

*"Calle de las Ferrerías
Alias de "Sorguñkale"
tienes como los espías
malhechores y ladrones*



Santa Ana jaiak ospatuko dituzte Ferreríasen.

*sobre tus limpios blasones
un mote que te desvía".*

Sorginak nagusi izan dira betidanik kale honetan. Garai bateko "Sorguñkale"k izena aldatu badu ere, oraindik ere

nagusi dira sorgin eta sorgin-keriak Ferrerías kaleko jaietan.

Azken urteetako ekintzarik nagusia, auzokideek antolatzen duten herri bazkaria izaten da. Afalorduan, eguraldiak sarritan laguntzen ez

duenez, jai antolatzaileek Oñatiko mojei arrautzak bidaltzen dizkiete zeruko Aitak lagun dezan. Guztira, 120 pertsona inguru biltzen dira afarian, bapo jan ondoren, dantzaldiari aurre egiteko asmoz. Jai giro ezin hobean, menu osoa izango dute auzokideek afaltzeko: lehendabizi, barazki menestra egongo da, gero atuna tomatearekin eta bukatzeko, bizkotxoa kafeaz lagundurik. Artea margo dendan jaso daitezke txartelak. Interesatuok, bizkor ibili eta lortu afarirako zuen sarre-ra. Tradizio handiko jaiak dira Ferrerías kalekoak. Hantxe jai baina kanpoan bizi direnak ere, urteroko deialdiari eusten diote gainera.

CARMEN

Ile apaindegia
Solariuma

Ferrerías, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63



LASAI
KOLTZOI DENDA

Ferrerías, 28 A
Tel.: 943 77 08 11

- Koltxoiak
- Kanapeak
- Nordikoak
- Izarak
- Lumatxak
- Gortinak

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerías, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



"Ilusioak
banatzen"

Ferrerías, 12
Tel.: 943 71 24 66



Ferrerías, 14. 943 79 87 62



Parlance

- Haur, gazte eta helduentzako ingelesa.
- Cambridgeko azterketetan espezialistak.
- Irlandan lana eta ikastaroak.

Ferrerías, 11 behea. • Tel: 943 77 06 83

MERKEKILO

Oihalak
Gortinak

Ferrerías, 5
Tel.: 943 79 15 00

Body piercing
eta
tatuajeak



Ferrerías, 28 behea, B
Tel.: 943 79 92 84



Ferrerias kaleko jaiak

Egitaraua

Uztailak
26

- | | | | |
|-------|------------------------|-------|----------------------|
| 09:00 | Etxafleruak. | 19:00 | Joku eta lehiaketak. |
| 12:00 | Txistularien kalejira. | 19:00 | Kaleko hildakoen |
| 17:00 | Haur Jolasak. | | aldeko meza |
| | Zaku lasterketa. | | parrokian. |
| | Txokolatada,... | 21:00 | Herri afaria. |
| 19:00 | Ikurriña jaso. | 23:00 | Musika, herriko |
| | Txistularien kalejira. | | talde batek girotua. |
| | Herri Poteoa. | 24:00 | Zaku lasterketa |
| | 7 eta 14 urte | | eta helduentzako |
| | bitarteko | | jolasak. |
| | haurrentzako | | |
| | lasterketa. | | |



• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Ispiluak, Margoak

Ferrerias, 11 • Tel.: 943 77 10 95
ARRASATE

BASATI

TABERNA

Abuztuaren
zabalik!!

Ferrerias, 19 • Tel.: 943 79 04 46

Jovi

10.000
KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea
Tel.: 943 79 12 87

**Atsedena
yaiza
armairuak**

**Atsedena hartzeko
ordua iritsi da!**

Neurriko armairuak

Ferrerias, 28 C
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 76 92

**RAMÓN OTAMENDI
HARATEGIA**

Berezitasunak:
Hemengo okela, buzkantzak eta txorizoa

Ferrerias, 20 • ARRASATE • Tel.: 943 79 62 28

**PAPER DENDA
J. URIARTE
GRUPO TAMAYO**

Eskerrik asko eta ondo igaro Ferrerriaseko jaiak

Ferrerias kalea, 32 • Tel.: 943 77 03 80 • 20500 ARRASATE

**OBRAK ETA BARRUKO
PROIEKTUAK**

Fixe....
Mobiliario
y decoración

Ferrerias, 17
Tel. eta faxa: 943 79 03 17
ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11 • ARRASATE

GORKA

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

ILE APAINDEGIA **SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

LUZAPENAK




Kiroldegi berria 2001. urtean hasiko dute

Itxura hau izango du Musakolan egin nahi duten kiroldegiak. Aurreko urteko planarekin alderatuz gero, aldatarik nabarmenena zera da: lehen atletismoko pista futbol zelaiarekin batera zeudela, eta orain errugbi zelaiarekin egingo direla.

1 Errugbi zelaiari inguratzen egingo dira atletismoko pista, 100 eta 400 m.koak eta "foto finish" ateratzeko dorrea ere egingo da.

2 Futbol zelaiari dagokionez, belar artifiziala izango duela da azpimarragarriena. Eta baita errugbi zelaiak eta futbol zelaiak harmailak elkarrekin izango dituztela. 1.000 eserleku izango dira. Atxabalperi dagokionez, erabaki



barik dagoen arren, proiektuak aurrera segituz gero desagertu egingo litzateke, gaur egungo errugbi zelaiarekin batera.

3 Ez da estalia izango eta inguruan pista izateaz gain, teniseko bi pista izango ditu.

Horretaz gain, kanpoko instalazioak moldatu egingo

dira. Gaur egun tenis, eskubaloifutbito eta saskibaloipistak dauden lekuan gero futbolerako pista egingo eta barruan tenis eta eskubaloipistak egingo dituzte. Zorua, berriz, hormigoizkoa izan barik, artifiziala izango da eta bi gune berri egingo dira 24 orduz irekita egongo direnak: patinatzelekua eta auto telegidatuendako pista.

EPEAK

LKS Ingeniariak egindako proiektua egiteko 1.200 milioi behar ditu udalak eta 2001. urtearen amaiera aldera hasi nahi du egiten, honela 2003. erako amaituta egon dadin. Dena dela, aurtengo urtearen amaieran kiroldegiaren barruko hobekuntza lanak hasiko dira.

Oihana
LORADENDA

Eskerrik asko beti gurekin izatearren.

Uztailean agortuko dira gure lore eta landare naturalak. Irailetik aurrera landare sikuekin soilik egingo dugu lan.

Arrasate pasealekua, 8 • Tel.: 943 77 14 56

Zintzarria



munduko musiken Xareta 1go jaialdia
zugarramurdi. uztailak 29, 30

hijas del sol
luar na lubre
septeto santiaguero
oskorri
alaitz eta maider
erdi aroko azoka...

ANTOLATZAILEA:





larunbata
29
20:00 *jabier muguruza*
20:30 *faltriqueira.GA*
21:10 *etzakit*
22:20 *hijas del sol.ginea*
23:30 *oskorri*
00:40 *luar na lubre.GA*
01:50 *xuia reggae band*

igandea
30
20:00 *maddi oihenart*
20:30 *pier paul berzaitz*
21:10 *john whelan.UK*
22:20 *septeto santiaguero.kuba*
23:30 *eric rigler&bad haggis.eeuu*
00:40 *alaitz eta maider*
www.zintzarria.com

sarrerak jadanik salgai (2.500 pta)
CLUBES CANeko bezeroentzat sarrera: 2.200 pzta.
• *urretxindorra (bilbo)*
• *bilintx - frudisk (donostia)*
• *arriaga (gasteiz)*
• *bertso hop (irun)*
• *xalbador - chaston (iruña)*
• *mattin (baiona)*

InfoClub
901-500 500




OPORRAK BADATOZELA!!

ANIMA
ZAITEZ,
MEREZI DU
ETA!

LEHIAKETA
BIDALI ARRASATE PRESSERA
(OTALORA LIZENTZIATUA, 31 ARRASATE 20.500)
ZURE OPORRETAKO
ARGAZKIRIK EDO POSTALIK
ONENAK.

EPEA: IRAILAK 11
SARIA:UGARAN JATETXEAN
4 LAGUNENTZAKO AFARI EDERRA



Bederatzi txapelkun Makatzenan

Pasa den asteburuan jokatu ziren Makatzenako pilota txapelketako finalak. Benjamin, alebin, infantil, afizionatu eta beteranoak aritu ziren. Bederatzi pilotarik jantzi zuten Makatzenako txapela. Partida guztiak eskuz binaka jokatu ziren, infantiletakoa izan ezik.

Benjaminetan, Erañak eta Arriaranek 22 eta 17 irabazi zuten Isasimendi eta Arantzabalen aurka. Aurretik joan ziren Isasimendi eta Arantzabal ia partida osoan zehar. 15.ean, ordea, buelta eman zioten markagailuari Erañak eta Arriarananek.

Alebinetan, Fernandez eta Agirre aritu ziren Anzizar eta Bolinagaren aurka. Bigarren bikoteak 22 eta 15 irabazi zuen.

Infantiletan, Jimenezek 22 eta 9 irabazi zion Gozalori. Entrenamenduetan Gozalo ibili zen Jimenez baino hobeto, baina finalean gauzak alde-



Aitor Fernandez eta Ibai Bolinagak Berrizko txapelketa jokatu dute.

rantziz izan ziren eta Jimenezek jantzi zuen txapela.

Afizionatuetan, Uribarren eta Osinaga izan ziren txapelkunak; 22 eta 14 irabazi zieten Lazkano eta Arostegiri. Beteranotan, Zugasti eta Zuzubiskar izan ziren onenak. 20 tantotan utzi zituzten Urta eta Zubillaga. Gazteak hobeak izan ziren eta euren sasoiak

beteranoen esperientziak baino gehiago balio izan zuen. Dena dela, Urrak jokaldi bikainak egin zituen eta txaloak ere jaso zituen.

Bestalde, Ibai Bolinaga eta Aitor Fernandez pilotari benjaminetik Berrizko txapelketako finalerdiak jokatu dituzte larunbatean. Txapelketa eskuz banakakoa da.

San Andres txapelkun

San Andres Xake Taldeak beste txapel bat dauka. Mutrikun irabazi zuten taldekako partida azkarretako txapelketan. Joan den zapatuan izan ziren bertan Josu Tornay, Txema Hernando, Roberto Villar eta Xabier Aspe. Hamabi taldek jokatu zuten txapelketa eta mondragoetarrek izan ziren onenak, Eibar eta Ermuaren aurretik.

Astelehenean eta martitzenean, "Gorlizeko Badiako Nazioarteko Irekian" arituko dira Josu Tornay eta Isidro Ruiz. Txapelketa hau ELO edo xakeko nazioarteko sailkapenerako baliagarria da. Partidak, asko jota, bi ordukoak izango dira, izan ere, jokalariek bakoitzak ordu bat baino ez dauka jokatzeko.

San Andres Xake Taldekoak lehenengo aldiz izango dira txapelketa honetan.

Gipuzkoako Bolo Palma Txapelketa

Larunbatean Gipuzkoako Bolo Palma Txapelketa jokatu da Santamainan. Beteranoek larunbatean 16:00etan eta hirugarren mailakoek igandean, goizeko 10:00etan. Peña Bolística Arrasate-Mondragon taldeak antolatu du eta txapelkunek Espainiako Txapelketa jokatu beharko dute Kantabrian abuztuan. Iaz Luis Rodriguezek beteranotan parte hartu zuen Espainiako Txapelketan eta aurten ere aukera asko ditu jokatzeko, dena dela, ikusi egin behar larunbatean zer egiten duen.

Bestalde, joan den asteburuan jokatu txapelketari dagokionez, profe-



Larunbatean 16:00etan eta igandean 10:00etan izango da txapelketa.

sionaletan Valentin Cabanzo izan zen txapelketa eta Luis Rodriguez arrasatearra bigarren izan zen.

Auzokoen artean egindako txapelketan, irabazlea

Antonio Lozano izan zen eta infantil eta haur mailan, Alberto Cosio donostiarraren lehenengo eta Iker Blanco arrasatearra bigarren izan ziren.

Ezin denboraz jeitsi

Orain dela bi aste Gipuzkoako Txapelketa Absolutuak jokatu zituzten Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kirolariek. Eta hauetako batek, Unai Sarabiak, Euskal Herriko Txapelketa absolutua jokatu zuen joan den asteburuan. 100 m.ko lasterketan parte hartu zuen Bilboko Zorroako pistak inauguratzen zirela-eta. Baina, Sarabiak ez zuen zorte onik izan. Bere marka baino gehiago behar izan zuen 100 metroak egiteko: 11 segundo eta 40 ehuneko, hain zuzen ere. Hala ere, urrian Santanderren egongo da Espainiako Txapelketan. Izan ere, junior mailako gutxieneko denbora badauka.

Bost taldek jokatu zuten Gasteiz Cup txapelketa



Bizkorrek taldea hirugarren gelditu zen.



JMAkoak bigarren izan ziren zazpinako futbolean.

Maila guztietako gazte mon-dragoetarak jokatu zuten joan den astean Gasteiz Cup fut-bol txapelketan.

Aurreko Arrasate Pressen, Canas Esteban izenarekin jokatu zuen taldea aurkeztu genizuen. Talderik gazteena izan zen, baina finalerdietan kanporatu zuten. Aurreko bi urteetan, taldea jokalaria nagusiagoek osatu dute eta euren mailan txapelkun gelditu dira. Dena dela, lehenengo aldia izateko, finalerdietara iristea, ez dago batere gaizki.

JMA, ZAZPINAKO FUTBOLEAN

1988an eta 1989an jaiotakoek ere bi talde osatu zituzten Gasteiz Cupen aritzeko. Bi taldeentzat hirugarren txapelketa zen eta zaharrenak bigarren izan ziren, B-12 mailan, zazpinako futbolean. Taldea hona-

ko hauek osatu zuten: Soto, Jokin, Antxon, Josu, Maikel, Iker, Iker, Beñat, Erik, Peña eta Mikel; entrenatzailea Gregorio Palacios izan zen.

Eta berak zuzendu zuen

baita ere 1989an jaiotakoentaldia: David, Beñat, Jon, Peio, Aitor, Julen, Ansuategi, Markel, Oier, Iker, Joseba, Gorka eta Romero. Talde hau finalerdietan kaleratu zuen Pozue-

lo de Alarcon taldeak (3-4), gero txapelduna izan zen taldeak. Talde honek ere zazpinako futbolean jokatu zuen.

BIZKORRAK, ZAHARRENAK

1987an jaiotako Bizkorrek taldekoak, B-13 mailan, infantiletan jokatu zuten txapelketa. Hautzat ere lehenengo txapelketa izan zen, nahiz eta bi jokalaria aurreko urtean ere hantxe aritu ziren. Hirugarren gelditu ziren, 0 eta 2 galdu eta gero. Irabazleak valentziarrak izan ziren eta bigarrenak, berriz, asturiarrak.

Txelisek entrenatu duen taldea honako hauek osatu zuten: Losada, Ugalde, Crespo, Sanchez, Nafarrete, Gomez, Lasaga, Bolinaga, Losada, Heriz, Jurado, Linaizoro, Aparicio, Iparragirre, Macho eta Ibarquen jokalariek.



JMAko bigarren taldea finalerdietara iritsi zen.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA
Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Eluska Zabalo, saritua



Eluska Zabalo margolari arrasatearrak sari berri bat eskeratu zuen joan den domekan. Zarautzeko Artezaleak elkarteak eta Udaleko Turismo Bulegoak antolatutako XL. Julian Ugarte aire zabaleko margo azkar lehiaketa irabazi zuen 18 urteko arrasatear honek, eta garaikurra eta 120.000 pezetarekin saritu zuten.

60 SARI

Hain gaztea izan arren, 60 saritik gora irabazi ditu Eluskak, eta azken bost urteotan, Euskal Herriko hainbat herritan izan dira ikusgai bere lanak. Asteburuko obra saritua, Zarauzko Ebro Etxean izango da.

Espressionista estiloa jorritzen du Eluska Zabalok, eta forma geometrikoak lantzea du gustukoaren. Margogintza, komunikazio eta askabide modu bezala ikusten du, eta hainbeste lan egin ondoren, zaletasun horretatik bizi ahal izatea espero du.

Arrasateko trikitilariak, Austriara

Arrasateko Trikitilari Eskola bidaian doa, eta ez edonora gainera; Euskal Herria ordezkatu du Austrian ospatuko den folk jaialdi batean. Munduko hainbat herrialdeetako dantzak ikusi ahal izango dira, eta euskal dantzak erakustea arrasatearrei egokitu zaie.

Vienatik 200 kilometrora dagoen Sreistadt herrian ospatuko da folk ikuskizun handi hori. Arrasatetik sei lagun joango dira, 17 eta 18 urteko bost ikasle eta Maixa Lizarribar, irakaslea. Astelehenean, hilaren 24an, abiatuko dira, eta abuztuaren 6an etorriko dira, 28tik 30era jaialdian jardun ondoren.

EUSKALDUN BAKARRAK

Eskola bezala, Arrasatekoak egiten duen lehenengo irtee-



17 eta 18 urteko dantzariek ordezkatu gaituzte.

ra izango da, eta ez zaio estreinaldi makala tokatu. Parte hartzeko aukera, kasualitate hutsa izan zen: antolatzaileetako bat bidegorriak ikertzera etorri zen Arrasatera, hemengo musika gustatu zitzaion, eta jaialdia egiteko unea iritsi

zenez, Arrasateko eskolara dei egin zuen. Euskal talde bakarra izango da.

Talde guztia oso animoso dagoela esan digu Maixak. Guk zorte ona opa diegu, eta ea leku onean uzten dituzten gure dantzak!

Mexikoko dantza tradizionalak Monterronen



Datorren astelehen gauean, Nazioarteko Folklore Jaialdia ikusteko aukera izango dugu. Urtero bezala, munduko lurralde bateko dantza tradizionalak eskainiko ditu talde batek. Aurten, Mexikoko Guenda-Nabani dantza folkloriko konpainia izango dugu, Monterron Parkea dantza koloretsuz betetzen,

gaueko 22:30etik aurrera. Folklore erakustaldia baino askoz gehiago izango da saioa: dantzak Mexikoren historian izan duen garrantzia islatu nahi du talde horrek.

HERRI INDIGENAK

Guenda-Nabani elkarteak 1990ean sortu zen, euren

herriko folkloreaken aberastasuna erakutsi nahian. Hiru ikuskizun eskaintzen ditu Guenda-Nabani taldeak: lehenengoan, euren tradizioko genero musikal ezagunenak ezagutzera ematen ditu, lurralde bakoitzeko erritmoei tartea eginez: txiletar polkak, huapangoak, jarotxotar doinuak eta rantxera abesti ezagunak.

Bigarrenean, Mexikoko dantzak dira protagonista, indigenetatik hasi eta afrikarrek, europarrek eta amerikarrek utzitako eraginak islatu arte.

Azkenean, aldiz, umeek dute zeresan nagusia: euren erakutsi nahi zaie dantza pisu handia, eta txotxongi- loak eta antzerkia musika- rekin uztartzen dira.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL (IDAZLEA)

“Arrasateri buruzko kondaira eta sasihistoria gehiegi idatzi izan da”

Josemari Velez de Mendizabal arrasatearra, Eusko Ikaskuntzako kudeatzaile eta idazle izateaz gain, historiazale amorratua dugu. Joan den egubakoitzean, Maalako jaiak zirela-eta, bere azken emaitza aurkeztu zuen: Maalako Errebalako historiaren inguruko liburua.

—Zer dela eta liburu hau?

—Arrasateko historiarik minena gordetzen du Maalako Errebalak, eta nik esango nuke Euskal Herrian historiarik gehien gordetzen duten kaleen zerrenda bat egingo balitz, Maala punta-puntakoenen artean egongo litzatekeela. Maalako hainbat lagunek eskatu zidaten hango historia biltzeko, eta hortxe izan nuen aukera ederra. Bazen garaia historia hori jakitera emateko.

—Zela gorpuztu duzu liburua?

—Bi erreferentzia data hartu ditut: batetik, 1448. urtea, Ganboarrek Arrasateri su eman ziotenekoa; oñaztarrek Maala kaletik egin zuten ihes, baina azkenean Ganboarrek harrapatu eta sekulako jipioia eman zieten. Beste erreferentzia 1934. urtea da: orduko Herriko Etxean piztu zen urriko iraultza. Horrek erakusten du historian garai ziklikoak daudela. Baina, hizki larriz idazten den historiaz gain, kale honetako pasadizoak ere jaso ditut liburuan.

—Arrasateren historiari buruzko hainbat liburu idatzi dituzu dagoeneko. Zer dela eta interes hori?

—Edozein hiritarrek bere historia ezagutu behar du. Gure historiak dokumentazio ikaragarria du, baina



Arrasateren kasuan behintzat, kondaira eta sasihistoria gehiegi idatzi da. Nire lana erdi gordeta dauden datuak, erreferentziak eta iturriak azalaztea besterik ez da izan. Baina, ni ez naiz historiagilea, historia irakurlea baizik.

—Zelakoa da historia agertarazte lan hori?

—Ez da zaila, erreferentziak agerian daudelako. Nik, adibidez, aspalditik jakin izan ditudan gauzak bildu eta hari bat eman diet. Bai Maalari buruzko liburu honetan, bai eta Arrasateren inguruko besteetan, nire bizipenak eta irakurketak bildu izan ditut, besterik ez.

—Historia jakin nahi duenari, zein aholku emango zenioke?

—Irakurtzeko, horixe baita oinarria. Iturriak gure eskura daude, agerian, eta hortik dator gure zoritxarra: azken urteotan, egia kontatzen ez duten zenbait argitalpen izan dira, eta horrelako lanek ez diote historiari inongo mesederik egingen. Erraza da jakiten zeintzuk diren iturri fidagarriak: zailena, irakurtzeari ekitea da.

—Beste lanen bat prestatzen ariko zara...

—Bai, Arrasateko 10., 20. eta 30. hamarkadetako historia bilduko duen liburua. Montevideon bizi den lagun batekin luzaroan izan ditudan elkarriketa eta gutun trukaketa izango da haria.

“Ez naiz historialaria, historia irakurlea baizik: gordeta zeuden erreferentziak azalatu baino ez dut egin”

asteko filma



Tango para tres

(Three to Tango). EEBB, 2000. Komedia. **Zuzendaria:** Damon Santostefano. **Aktoreak:** Matthew Perry, Neve Campbell, Dylan McDermott, Oliver Pratt. **Kalifikazioa:** 13 urtetik aurrerakoentzat.

HARIA

Oscar eta Peter arkitekto gazte, idealista eta ekimen handikoak dira, euren karreraren arrakasta handiena lortzeko zorian: Charles Newman handikiak egitasmo handi baterako aukeratu ditu. Oscarren lanerako grina ikusita, Newman jeloskorrak bere maitalea, Amy, zaintzea agintzen dio. Amy bere ametsetako neska dela konturatzen da Oscar, baina hura lortzea ia ezinezko bihurtuko da: Charlesekin eta Amyk Oscar gay dela uste dute. Oscar hiriko gay profesional famatuena bihurtzen da; arazoa da, heterosexuala dela.

KRITIKA

Matthew Perry telebistari esker egin da ezagun, bera dugu-eta Friends tele-saileko protagonistetako bat. Zaila da esaten telebistako izarrek noiz duten unea zinemara salto egiteko, asko eta asko bidean geratzen baitira. Baina, Perryk ondo baino hobeto aukeratu ditu bere filmak, eta horren eredu onena honakoa dugu. Maitasunezko komedia dugu hau, azken bolada honetan hain modan dagoena, batez ere Meg Ryan aktorearen eskutik; Tango para Tres-en, ordea, nahiz eta maitasun kontuak ere nagusi diren, umoreak eta originaltasunak gogaikarritasuna uxatzen dute. Horrek ez du esan nahi istorioa ez dugunik beste hamaika filmetan ikusi, baina egoera barrengarri eta aktoreen lan bikainarengatik, merezi du filma ikustea.

irakurle eta entzule

Iturria: Eya eta Hire

diskoak

IN BLUE

The Corrs (Warner)



Talk on Corners eta The Corrs Unplugged arrakasten ondoren, disko berri batekin datozkigu Corrs anaia-arreba irlandarrak.

Musika zeltiarraren eragin nabarmena du Andrea, Caroline, Sharon eta Jim Corren musikak, baina *In Blue* rekin, bira eman nahi izan diote euren betiko sortze moldeari eta, hari muzinik egin gabe, gustuko duten musika estilo guztiei tartea egin nahi izan diete. Eta emaitzak benetan merezi du: biolin doinu xarmangarriek eta ahots eztiak harrapatzen segitzen gaituzte, baina rhythm&blues, soul eta rockarekin mestizajea. *The Corrs*-en diskorik aurpegiatzena eta onena dugu hau. *Breathless* singlea, edo *No More Cry*, euren amaren heriotzaren ondoren idatzitakoa, gustura entzuteko moduko abestiak dira. Miatu ondo lan honen zirrikituak, aurkituko duzue-eta zer gozatu.

liburuak

MITO HURBILAK

Anuntxi Arana

Gatzuzain arg. 224 orr., 2.500 pta.



Anuntxi Arana antropologoa da, eta hainbat ikerketa egin du euskal mitologiaren inguruan. Gai hori aukeratu zuen bere doktore tesia egiteko, eta ipar Euskal Herriko sinesmenak aztertu ditu. Bazuen,

bada, nahiko hatu intelektual mitoak eta kondairak gure eguneroko bizitza itxuraz prosaiko honetan duten eraginaz liburu bat idazteko. Eta horixe da honakoa, hain zuzen: sasoi bateko jakinduria edo sinesmen moldeak guk gaur egun ditugunetatik uste baino gertuago daudela erakusten duen idatzi benetan interesgarria. Oso liburu dokumentatua da; idazle eta pentsalari askok mitologian izan duten interesa erakusten du, eta kondairak, atsoen ipuinak baino, mundua ulertzeko eta behatzeko modua direla ikus dezakegu, irakurketa gomen-dagarri honi esker.

asteburuan zer

kontzertuak

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Uztailari akabera ona emateko, *Angiolillo* rock kontzertua antolatu du Gaztetxean *Manos a la Cabeza* ekoizpen etxeak datorren egubakoitzerako, uztailak 28. Gaueko 22:00etan hasiko da musika emanaldia. AGAKO eta AHTren aurkako asanblearekin elkarlanean antolatu da.

Espainiako hiru talde gonbidatu dituzte antolatzaileek: *El Corazón del Sapo*, adibidez, *La Casa Magnética* izeneko euren azken diskoa aurkeztera etorriko da Arrasatera. Ondoren, *Escuela de Odio* izango dugu entzungai; hauek Asturiasetik datoz, eta hango hardcore estiloko eskola zaharreko talderik indartsueneta-



riko bat izatearen ohorea dagokie. Hauek ere diskoa kaleratu berri dute, bosgarrena, eta horko doinuak izango dira nagusi euren emanaldian. Eta hirukoa osatzeko, Asturiasetik Aragoi aldera, Zaragozara, egingo dugu salto, horkoak dira-eta *Facción* taldekoak. Hauek ere hardcore estiloko lantzen dute, baina, aurrekoak ez bezala, hasi berriak dira musika munduan, lehen diskoa plazaratu dute-eta.

Arrasate Irratiak ere oporrak hartuko ditu

BAINA, AURRETIK LEHIAKETA MUNDIALA EGINGO DU

Asteazken, ostegun eta ostirala izango dira Arrasate Irratiaren uda aurreko azken emisio egunak. Izan ere, arrasatearren irratia ere oporrak hartuko ditu hilaren 28an. Baina, hori egin aurretik, Lizarralde Kirolak-en laguntzarekin Arrasate Pressek antolatu duen lehiaketaren irabazlea zein den jakinaraziko du. Tourreko lehenengo hiru sailkatuak nortzuk izango diren domekan jakingo dugu eta uztailaren 26an, asteazkenean, zozketa egingo da Arrasate Irratian. Lehiaketan parte hartu ez baduzue, jakin uztailaren 20an amaitu zela txartelak aurkezteko epea. Dena dela, emozioz beteriko zozketa izango da, duda barik, bizikletak merezi duelako. Zozketa eguerdiko 12:00etan egingo dute Alazne Ostolazak eta Aitziber Aranburuzabalak.

OSTIRALEAN, OPORRAK

Arrasate Pressek aste honetan, Goiena Telebistak gaur eta Arrasate Irratiak ostiralean,




hilaren 28an, hartuko ditu oporrak. Irailaren 3a arte ez da emisiorik egongo 107.7an. GOITBri dagokionez, berriz ere zuen etxean izango duzue bailarako telebista irailaren 4an eta Arrasate Pressek abuztuaren 28an ekingo dio lanari, irailaren 4an zuen etxetara iristeko.

Ondo pasa oporrak.

IRRATIKO PROGRAMAZIOA

Uda aurreko azkeneko hiru egunetan, asteazkenetik ostiralera, albistegien tartea baino ez du eskainiko Arrasate Irratiak. Alazne Ostolazak zuzenduko ditu eta Aitziber Aranburuzabalaren laguntza izango du, egunean zehar egingo diren hiru albistegietan: 09:00, 11:00 eta 12:45ean.



WERU®

WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

**PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...**

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte,12 Bergara Tel.: 943 76 22 96

Renault 19 1.9 Diesel 5 ate		1995		*4
Peugeot 405 1.9 GR		1989	AG	*2
Peugeot 406 TD		1999	AG	*7
Peugeot 306 1.9 Diesel		1999	AG	*6
Peugeot 306 1.6 Diesel		2000	Kilometro zero	*6
Peugeot 206 XR 1.4 5 ate		1999		*5

AUTOLEYMA: Aitziturri 5. Bergara. Tel.: 943 76 09 30

Peugeot 406 SR HDI			AG, ABS, 4 AIRBAG	*7
Peugeot 306 Diesel			AG, 2 AIRBAG	*6
Peugeot 206 XR 1.4				*5
Peugeot 306 Sedan Style Diesel				*5
Peugeot 306 Break Diesel			AG, ABS, 2 AIRBAG	*6

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49 Bergara Tel.: 943 76 22 43

Honda Concerto 1.5i 16 v	BI-CG	1994	A-AG-AH-IE-IK-IZ-KE-LD-LK	*3
Seat Toledo Sport 1.8 16 v	SS-AL	1991	AG-AH-IE-IK-IZ-KE-LD-LK-ABS	*3
Fiat Tipo 1.6 AGT	SS-AK	1991	IK-IZ-KE-LK	*2
Ford Fiesta 1.1 3 ate	SS-AN	1992		*2
Ford Mondeo RS V6	SS-BG	1999	A-AH-IE-IK-IZ-KE-KL-LD-LK-LKA-ABS	*7
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	IK-IZ-KE-LD-LK	*3

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84



**SAN MARTIN
KARROZERIAK**

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen
kopiak egiten
ditugu!




Txorno
Auto-errekabioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

**DENA
AUTO**

Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97




**AUTO DESGUACES
BERGARA**

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

**BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA**

PENAKOBA



Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
ARRASATE ONATI

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

CHAPIME TAILERRAK. Araba Etorbidea 5 **Arrasate** Tel.: 943 79 45 22

Lancia Delta 1.6	SS-AJ	1990	EXTRAK	*1
Citroen ZX 2.0i Volcane	SS-AN	1993	EXTRAK	*3
Opel Vectra 1.7D GL	BI-BL	1992	EXTRAK	*4
Fiat Uno 70 SX i.e.	SS-AJ	1990	EXTRAK	*2
Opel Astra 1.7 TD GL	SS-AT	1994	EXTRAK	*4
Seat Marbella 1.0	BI-BG	1991		*1
Alfa Romeo 133	SS-AM	1991	EXTRAK	*1
VW Polo 1.3	SS-AJ	1990		*1
Renault 19 TXI 1.8	SS-AK	1991	EXTRAK	*2
Renault Express Gasolina	BI-BK	1991		*2
Fiat Tipo 1.4 AGT	SS-AJ	1990	EXTRAK	*1
Renault 19 19TD	SS-AV	1995	EXTRAK	*4
Seat Ibiza 1.4 3 ate	SS-BD	1998	EXTRAK	*5

FIAT KANPAZAR C.B. Bizkaia Etorbidea, z/g **Arrasate** Tel.: 943 79 41 98

Fiat Punto 1.2. ELX		2000		*5
Renault Megane TD	SS-AX	1996		*5
Peugeot 205	VI-J	1988		*1
Fiat Punto 55		1999		*5

MECA. San Andres, 8 **Arrasate** Tel.: 943 71 21 67

Megane Alizé 1.6	B-TX	1998		1.250.000
Peugeot 205 3ate 1.1 Style	SS-AL	1991		300.000
Golf 1.6 TD 5 ate	SS-AP	1993		750.000
AX 1.4 TRD	BI-AY	1989		250.000
Clio S 1.7 3 ate	SS-AN	1992		450.000

REPARACIONES LENIZ, C.B. Aingeru Ibiltokia, 31 **Eskoriatza** Tel.: 943 71 50 61

Rover 214 SI	SS-AN	1991		
--------------	-------	------	--	--

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurgiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000-3.000.000 PTA
 *8: 3.000.000 PTAtik aurrera

AGUSTIN
 Automobilarren
 karburazio eta
 elektronika **Airtel**
 Uribarri etorbidea 16.
 Arrasate. 943 79 73 58

Larrinjan
GIDARI ESKOLA
 ARRASATE ARETXABALETA
 Garibai Etorbidea, 5
 Tel.: 943 79 22 96
 ARRASATE
 Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
 Tel.: 943 79 64 50
 ARETXABALETA

DENA AUTO
 Tel.: 943 71 23 91
 943 76 03 97

DENA AUTO

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Hiru logela, egongela, soto handia eta berogailua duen etxe berriztua salgai. Tel.: 943 79 57 88 (20:00etik aurrera).

• Araba etorbidean, etxebizitza salgai. Tel.: 987 31 20 46.

• Etxe berria salgai Bergaran. 80 m² gutxi gora behera. 26,5 milioi pta. Tel.: 630 505 616.

• Atalaya de Aron etxebizitza salgai (Arrasate 50 minutura). Hegoaldera begira, ikuspegi ederrarekin. Lorategi pribatua, igerilekua duen polikiroldegitik gertu. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela eta gara-jea. Tel.: 941 31 00 10.

• Etxebizitza salgai, Udalpe kalean. 3 logela, kanpora begira, berehala sartzeko. Tel.: 943 79 15 57.

3. Errentan emateko

• Ikasleen pisua alokagai San Andre-sen. 3 logela. Tel.: 943 79 81 05.

• Bi logela eta egongela-jantokia duen apartamentua alokatzen da Torreveijan, urte osoan zehar, hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

• Teilatupe handia alokagai Torreveijan. Terrazaduna eta itsasora begira. Tel.: 600 05 69 37 edo 943 32 23 64.

• Pisu eraberritua estreinatzeko alokagai. Donostiako erdigunean kokatua. Tel.: 600 05 69 37 edo 943 32 23 64.

• Eskola Politeknikotik gertu, etxebizitza alokagai. Tel.: 945 44 51 91.

• Etxebizitza alokagai Arrasaten. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela, teilatupea, berria. Tel.: 943 79 79 51.

• Getarin etxebizitza alokagai. 85 m²ko eta itsasora begira. Tel.: 943 83 47 36.

4. Errentan hartzeko

• Unibertsitateko ikasle talde batek lau lagunentzako etxebizitza behar du Arrasaten edo Eskoriatzan. Tel.: 94365 45 22 (Aiala) edo 943 18 74 97 (Gorane).

• Unibertsitateko 3 ikasle pisua alokatuko lukete. Tel.: 943 81 54 45.

• Pisu bila nabil Arrasaten edo Eskoriatzan. Tel.: 946 83 24 67 edo 627 64 75 26. Gaez deitu. Ainarra.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskakerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskakerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

5. Etxeak osatzeko

• Neska bat behar dugu pisua osatzeko Bilbon (San Inazio kalean). 15.000 pta hilerro, banako gela. Tel.: 943 79 12 11, Maia. 943 77 11 84, Joakina.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

GARAJEAK

7. Saldu

• Txindoki dorrean garajea salgai, goiko solairuan. Tel.: 943 79 24 10.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai Eskoriatzan, Olaeta plazan. Tel.: 943 71 41 02.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdea 4, behean, 100 m²ko lokala salgai. Tel.: 943 79 42 65.

14. Errentan emateko

• Elikagaietan aritzeko lokala alokagai. Tel.: 943 79 96 39 (astegunetan).

• Etxean eskola partikularrak emateaz aspertuta zaudela? Lokal bat alokatzen dizut zure ikasleekin erasoago egon zaitezten. Tel.: 943 79 18 70.

LANA

17. Eskaintza

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 646 76 01 66.

• Medikuntza ikasle bat gaez gaez zaintzeko prest. Tel.: 943 79 07 03, 943 79 23 17 (Ainara).

• Bretoi gaztea, 21 urte, Arrasate ezagutzera dator uztailaren 2. hamabostaldian. Lan orduren batzuk eskainiko bazenizkio deitu 943 79 57 27 telefonora. Leire.

• Neska arduratsua eta esperientziaduna prest umeak zaindu eta plantxa egiteko, irailetik aurrera. Ordu-tegiak ez du axola. Tel.: 677 79 32 72.

• Emakume arduratsua prest lego-

ke umeak zaindu, etxeko lanak egin edo beste edozein lanetarako. Tel.: 943 79 48 65.

• Emakume batek umeak zainduko litzuke arratsaldean. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskakerak

• 30 urtetik gorako emakumea behar da pertsona nagusia zaintzeko. Tel.: 630 16 05 06.

• Umeak zaintzeko pertsona arduratsua behar da. Tel.: 943 79 41 67.

• Tabernarako esperientziadun zerbitzaria behar da. Tel.: 943 77 17 97, 943 79 83 98.

• Neska bat behar da tabernan asteburutan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Pertsona bat behar dut neskatila bat zaintzeko. Tel.: 943 79 82 18.

• Pertsona bat behar da jatetxe-kafe-tegi batean lan egiteko. Tel.: 629 94 22 53.

• Emakume bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko abuztuan, goizetan. Tel.: 943 79 09 11.

• Neska bat behar da arratsaldean Arrasateko ile apaindegian lanean lan egiteko. Tel.: 943 79 25 31, goizez edo arratsaldean. 943 79 18 14, arratsaldean.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• DBHko eta LHko eskola partikularrak emateko prest nago. Tel.: 943 79 33 39. Ahal bada 21:00etatik aurrera deitu.

• Frantsesezko mintza praktikak eskaintzen dira, uztailaren 2. hamabostaldian. Jatorrizko hiztuna. Tel.: 943 79 57 27. Leire.

• Fisika eta matematikako eskola partikularrak emango nitzuke, selektibitate mailara arte. Tel.: 943 79 68 29. Esther.

21. Eskakerak

• Filosofia lizentziatua behar da UBI-ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 33 91.

MOTORRA

23. Saldu

• Ford Transit furgoneta salgai, kanpinerako egokitu, abantzenekin

eta teilatuan ohea duela. Tel.: 943 79 31 25. Arratsaldez.

- Peugeot Speedfight bat salgai dago. Prezioa: 160.000 pta. Negoziatu daiteke. Tel.: 943 79 94 62, gaeuz deitu. Loli.

- Peugeot 205 Diesela SS-AN salgai. Tel.: 639 22 42 52.

- Ford Orion autoa salgai. Egoera onean, kubiartak eta enbrage berriekin. Tel.: 943 78 02 27. Igor.

- Quad Yamaha Blaster 200 cc. motorra salgai. Tel.: 626 79 86 96.

- Volkswagen Golf 2 GTi salgai, kilometro gutxi eta egoera onean. Tel.: 943 79 40 53.

- Seat Panda salgai. SS-AC. Egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 677 42 58 30.

DENETARIK

26. Saldu

- Kanitxe kume zuriak salgai. Tel.: 943 76 57 16.

- Playstation kontsola salgai, 10 jokurekin. 10.000 pta. Tel.: 943 77 94 55 (Mikel).

- Hiru txakur salgai: Spaniela, 6 hilabete, arra; Puentea, emea, urte eta erdi; eta Setterra, emea, 11 hilabete. Tel.: 943 76 37 70.

- Hiru lekuko sofa, bi besaulki eta bi ohe mahaitxoekin salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 53 12.

- Auto gainerako PVCzko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69.

- Trialsineko bizikleta salgai, egoera onean. Tel.: 943 77 03 95. 20:30etik aurrera.

- Roller karabana salgai, abantzearekin eta guzti. Tel.: 608 67 66 02.

- Karro-denda salgai, osagai guztiek. Tel.: 943 77 01 70.

- Aluminiozko bost llanta, estalki berriekin. Opel Corsa edo Opel Kadet-entzako berri-berriak dira. Tel.: 943 79 93 19.

- Canon EOS - 300 kameraren zoom 28/80 objektiboa salgai. Estreinatua gabe. Bermean dago. Prezio onean. Tel.: 943 77 13 02.

27. Erosi

- Bigarren eskuko hiru bizikleta behar dira. Tel.: 943 79 09 14. Nerea.

29. Eman

- Bainuko ispilu bat emango nuke doan, bere apliketa eta guzti. Tel.: 943 79 43 23.

30. Hartu

- Telebista zaharren bat bota nahi izanez gero, gustura hartuko genuke. Tel.: 616 53 36 76.

31. Galdu

- Gizon batek betaurrekoak galdu ditu. Otorara, Iturriotz eta Olarte artean: Leiar progresiboak dira eta kutxa urdin batean gordeta daude. Tel.: 943 79 61 31. Pedro Luis. Arratsaldez. Sarituko da.

- Hilaren 13an Santamainan jertse granate kremaileradun txotoduna galdu nuen. Aurkitu duenak dei dezala telefono honetara: 943 79 39 42.

33. Bestelakoak

- Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu

- Sanjoan bezperan giltza joku bat agertu zen Totem dendan. Jabea bertatik pasa dadila.

- Ekainaren 25ean, neskatilaren zako jaka bakeroa aurkitu nuen, 12. tailakoa, Zaldibarren. Tel.: 943 77 00 18.

- Pasa den larunbatean Nike jertse bat aurkitu nuen, Lorategi tabernaren aurrealdean. Udaletxean utziko dut.

- Lentilla progresiboak agertu dira Maalako Errebalako denda batean. Tel.: 943 79 50 32.

36. Deialdiak

- Kokatutako karabana antzeko bat errentan hartu nahiko nuke abuztuan, bi astez. Tel.: 943 77 01 31.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

- Familia bat behar da, datorren ikasurtean ikasle bat bere etxean hartzeko. Tel.: 943 83 37 45. Jösu.

Tour Lehiaketa Mundiala



Uztailaren 26an,
asteazkenean, irabazlearen
izena jakinaraziko dugu
Arrasate Irratian (FM107.7)
Eguerdiko 12:00etan.

Zeu izan zaitezke sariduna, adi egon !!

Saria: Lizarralde Kirolakek
eskainitako mendiko bizikleta
eder bat.



La Merced ikaste-
txearen egunean,
ospakizun bere-
zia egin ohi dute
hango ikasleek.
Horrelakoxe batean dago at-
rata argazki hau.

1960. hamarkadan, dan-
tza saio bat egin zuen argaz-
kiko neskatila talde honek San
Frantziskoko klaustroetan,
“Ahora sí que estoy contento”

abestiaren doinuarekin, hain
zuzen ere. Ikusten denez, gai-
nera, janzkera ere asmatu zuten
koreografiarako; zuri-grana-
tez jantzita azaldu ziren.

Dantzariak hauexek dira,
ezkerretik hasita: Arantza
Telleria, Arantza Otadui, Lour-
des Mendizabal, Marikruz
Ugalde, Amaia Uranga, Mari-
karmen Marigorta, Maribel
Uriarte, Maita Bidaburu,

Mariasun Arin eta Marikarmen
Isasa.

Dantzarien ondoan, ezke-
rrean, eskina-eskinan dagoe-
na Mertxe Barandiaran da.
Erdi-erdian dagoen betaurre-
kodun neska, berriz, Anuntxi
Pagaldai da.

Eta atzealdera joz, ezke-
rraldean dagoena Elena Altu-
be da. Horren segidan, lauga-
rren pertsona Elisabeth Agi-

re da eta ondokoa, berriz,
Karmele Gorospe. Zutaberai-
no helduz, handik hasita hiru-
garrena, Mari Paz Zubialdea
dago, hurrengoa, Marikontxi
Uribarren, segidan Hirune Iri-
becampos dago eta seigarren
lekuan, Josebe Landaluze.

Argazkia eta berriemailea:
Maribel Uriarte



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu



www.ikatz.es

ERREBELATUAN ESKAINTZA



4 Errebelatu eta 3 ordaindu
Banaka ekarri dezakezuz !

ARRASATEN: Iturrioz,8

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu



TEKNOLOGIA AURRERAKOiena GAI DA "AITA NOIZ GELDITUKO GAR
INJEKZIO ZUZENAREKIN ERLAZIONATZER



OPEL VECTRA, INJEKZIO ZUZENEKO 16 BALBULETAKO TURBODIESEL MOTORRAREKIN.

Bizitza errealean prestazioak ez dira zerotik ehunera neurtzen. Balio duena "bazkaltzeko itxaroten gaituzte" edo "aita noiz geldituko gara?" da. Opel Vectrak injekzio zuzeneko 16 balbuletako turbodiesel motorra dauka, ezin hobetuzko aire-erregai nahasketarekin, prestazio desiragarriak lortuz. Guzti kontsumo balio minimoek uko egin gabe. Injekzio zuzeneko Opel Vectra turbodieselak irabazietan askoz gehiago eskaintzen du, eta aurretik ikusi den elastikotasuna eta erantzunak ematen ditu. Bere ECOTEC teknologiarekin, martxaren garbitasuna, isiltasuna eta leuntasuna lortzen da. Baina hau guztia garrantzitsuagoa den beste zerbaitetan bihurtzen da. bidaiatz gozatzea. Teknologia askoz urrunago gidatzen gaituela egiaztatuko duzu.

OPEL VECTRA. INGENIARITZA ZIRRARAGARRIA
www.opel.es

OPEL

TALLERES OLA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86